



# ARGIA



42-47. orriak

## *Liburutegiak liburuetatik harago*

Gonzalo Oyarzún liburuzainarekin elkarrizketa

# 2.831 | 2023 / 07 / 02 | 4,00 €



**Klima aldaketari egokitzeko erabaki ekonomikoa**

12 | INGURUMENA



**Nola doa Errusia eta Ukrainaren arteko guda?**

26 | NAZIOARTEA




**“Kirol kazetari bikainak ditugu, baina ez diegu zukua ateratzen”**

34 | AITOR MANTEROLA

[CIES 2023:]

## INOIZKO IRAKURLE GEHIEN ARGIAK PAPEREAN

Azken CIES datuen arabera, ARGIAren audientziak gorantz jarraitzen du eta astero **67.000** lagunek irakurtzen dute Hego Euskal Herrian. Duela zortzi urte, 45.000 ziren, hau da, **%33**ko igoera.



**ESKERRIK ASKO ARGIA JENDE GUZTIEI.**

**ZUK ERE PROIEKTU HAU BABESTU NAHI BADUZU,**

**EGIN ZAITEZ ARGIAKOA**

[www.argia.eus/eginargiakoa](http://www.argia.eus/eginargiakoa)

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: PRESS PHOTOS

## Iritziak

- 21 | ASIER BLAS MENDOZA
- 22 | BEA SALABERRI
- 23 | IÑAKI MURUA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | ITZIAR MORENO

## Finkoak

- 37 | BIZI BARATZEA
- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:  
AINARA GARCIA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO  
BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DAVID F. SABADELL

### 30 | ANA REQUENA

elDiario.es-en sortzaileetako bat izateaz gain, hedabide horretako genero erredaktore burua da Requena. Argitaratu berri duen *Intensas* liburuaz eta kazetaritza feministaz galdetu dio Saioa Baleztenak.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

### Klima aldaketa saihestu beharrean, egoerari egokitu

Nicolas Goñi

16 | PERTSONAIA | ELENA M. DE MADINA

### "Toponimia aberastasun handia dugu Araban eta zer gutxi errespetatzen den!"

Miel Anjel Elunstondo

26 | NAZIOARTEA | UKRAINA

### Gerraren nondik norakoak

Rafael Poch / Ctxt

34 | KIROLA | AITOR MANTEROLA

### "Kirolari mespretxuz begiratzen dio kulturako sektore batek, eta ez zait jarrera praktikoa iruditzen"

Eñaut Agirrebengoa

42 | KULTURA | GONZALO OYARZÚN

### Nolako liburutegiak nahi ditugu?

Gorka Peñagarikano


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

### Jabetza

 Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,  
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,  
Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta,  
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,  
Lander Arbelaitz, Leire Artola,  
Leire Rodriguez, Mikel Garcia,  
Omintza Irureta, Pello Zubiria,  
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonia

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA  
honako enprekin batera:


KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


 software  
productions

## Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,  
moldatu, zabaldu eta argitara  
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta  
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da  
testuontzat eta, argazkien eta  
ilustrazioen kasuan, ARGIAren  
sinadura daramatenentzat soilik.



# KAZETA EZ DA DE



# KAZETARITZA EZ DA DELITUA

## Ez gaituzte ezagutzen

Mendebaldeko multinazional batek "hirugarren munduzat" hartzen duen lurralde bateko aberastasun naturalak ustiatzen ditu masiboki. Enpresarentzat dirutza, han bizi direnentzat kutsadura eta askotariko arazoak. Zenbat aldiz entzun dugu istorio hau? Oraingoan ordea, pagotxari eusteko enpresa horren zikinkeria eta azpijoko guztiak aireratu dituzte 65 kazetarik eta ikertzailek. Ez zaie gustatu, jakina. Ez dute nahi hortaz hitz egitea. Eta ahotsa altxatzen dutenei ezezik, horiei ahotsa ematen dietenei ere mehatxu egin die. Ezabatzeko. Ordaintzeko. Isiltzeko. Baina... botereaz mozkortuta dagoenari desobeditzea baino gauza ederragorik?

📍 DANI BLANCO / ARGIA    ✂️ AXIER LOPEZ

# Lurraren Altxamenduak sarea desegin du Frantziako Gobernuak

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**G**erard Darmanin Barne ministroak aurkeztu du dekretua Ministroen Kontseiluaren aitzinean. "Aurrekari larritzat" jo du eragile sozial, ekologista eta politiko andanak. Erabakia epaitegira eramanen duela argi utzi du Lurraren Altxamenduak sareak.

Iazko urrian "ekoterroristatzat" jo eta martxoan jakitera eman zuen taldea desegiteko prozeduraren berri Frantziako Barne ministro Gerard Darmaninek. Pasa den ekainaren 21ean aurkeztu du dekretua Ministroen Kontseiluaren aurrean, Emmanuel Macron presidenteak horretara bultzaturik. "Indarkeriaren erabilpena ez da legitimoa zuzenbide estatuan, eta hori dugu zigortu", izan dira gobernuaren bozeramaile Olivier Veranen hitzak Ministroen Kontseilutik ateratzerakoan.

Mugimendu ekologistaren aurkako eraso larritzat jo dute eragile anitzek: Confederation Paysanne nekazari sindikatuak, Solidaires sindikatuak, Extinction Rebellion kolektibo ekologistak, *Reporterre* komunikabide independenteak, ingurumenaren zaintzan dabilen Agir pour l'environnement, NPA alderdi politikoak eta hainbat norbanakok ere...

**"Desegite horrek aurrekari arriskutsua sortzen du gobernuaren lerratze autoritarioan, atzera bueltarik gabeko puntu batean gaude"**

2021ean sortua, gaur egun ehun bat eragile eta kolektibo batzen dituen sare ekologista da Lurraren Altxamenduak. Hori horrela, mugimendu ekologista zabalaren aurkako eraso da dekretu hori. 111.600 bat herritarrek ere dute izenpetu sarearen parte izendatzen dituen manifestua.

Dekretua ezeztatzeko asmoz epaitegira joko duela jakitera eman du Lurraren Altxamenduak-ek. Hainbat mobilizazio ere izan dira han-hemenka, "oinarrizko askatasunen eta demokraziaren kontra eraso larria" salatzen.

Ipar Euskal Herrian etxebizitzaren eta lurraren gaineko espekulazioaren aurka borrokan dabilen Ostia sarearen hitzetan, "desegite horrek aurrekari

arriskutsua sortzen du gobernuaren lerratze autoritarioan, atzera bueltarik gabeko puntu batean gaude". Nazio Batuen Erakundeak Frantziako Poliziaren bortizkeria, militantzia ekologikoaren kriminalizazioa eta orden publikoa indarrez mantentzea salatu du, eta horren aurrean "gobernuak errepresioa azkar-tzea" hautatu duela dio sareak.

## HEMEZORTZI AKTIBISTA ATXILOTURIK

Sarearen desegitearen bezperan burutu du Frantziako Poliziak Lurraren Altxamenduak-en aurkako bigarren sarekada. Sainte-Soline herriko megabassine edo uraska erraldoien aurkako martxo-ko manifestazioari edota Lafarge hormigoiko ekoizlearen aurkako ekintzei lotuak dira atxilotetak. Parisen, Marsellan eta Notre-Dame-Des-Landes-eko ZAD gunean burutu dute polizia operazioa. Ekainaren 5ean atxilotu zituzten beste hamabost bat lagun –tartean bi euskaldun-. Azkenean, kargurik gabe aske utzi zituzten guziak, lau egunez galdekatu ondoren.

## ERAGINKORRA DELAKO DA ARRISKUTSUA

Lurraren Altxamenduak mugimenduz Poliziak eraman ikerketa plazaratu zuen apirilean *Mediapart*-ek. "Abilezia", "perfektuki jositako komunikazioa" ala "liluratzeko gaitasuna"... hots, loreak; besterik ez da ageri txostenean. Eragin-korra eta iraultzailea den mugimendu berri hori trabagarria zaio Frantziako Gobernuari. Hortik aztertu behar dira Sainte-Solineko edo asteburu honetan Lyon-Turrin autobidearen aurkako manifestazioan bideratu neurrigabeko errepresioa eta ekainaren 21ean mugimendua desegiteko emandako urratsa. Poliziaren txosten horri eta bere errepresioari bideratu genien *Borroka-bide eraginkorrak asmatzen dabilen Lurraren Altxamenduak hats gabe utzi nahi luke Frantziako Estatuak* erreportajea 2823. ARGIAN. ●



## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Jakin-minaren mugak



UXUE APAOLAZA LARREA

**E**gunero-egunero gosál dezakegu mundua bidegabea dela erakusten duten adibideekin. Ahal dugu hala delako, eta hala jasota geratzen delako medioetan, hala adierazita ez bada ere. Ez dugu egiten, zaila baita egunero errugabetasunaren, erruduntasunaren, arduren, materialismo historikoaren... logikak gosaritan askatzea, eta abiatu beharreko eguneroko ezinezkoan pribilejioren bat antzematea. Pribilejio batzuk sotilak dira batzuetan. Eta logika horiek zailduz ahularen etsai erraz egin gaitzaketen medioek berek eman digute bat-batean mundua bidegabea dela edonork ulertzeko moduko irudi hurrenkera. Bost pertsona Titan urpekarian; zazpiehun bat pertsona arrantzontzi batean. Eta ekipoak egin genituen: nor salbatu behar dugu?

Titanak zuku asko dauka. Nik neuk sinetsi dut "jakin-mina gero eta mugagabeagoa hobe", nik neuk goraipatu ditut jakin-min hutsez egindako erokeria batzuk... jakin-mina entretenimendu hutsal bilakatzeraino. Guk ere sinetsi dugu bidaiatuz ikasi egiten dela, bidaiatzea ez dela inorentzat kaltegarria. Eta bidaiak hori teknologia erakustaldi bat zen, erreskatea bezalaxe: gerrarako jostailuak baino zibikoagoak, aurrerapen aurrerapenagoak iruditzen zaizkigu azalpen zientifikoak behar dituzten salbamendurako tramankuluak. Eta batzuk salbatzeko hainbeste baliabide egonda, zergatik besteak itotzen utzi: hori izan da sutu gaituen galdera. "Itotzen uzten ditugu" izan da zigortu gaituena.

Kontua da arazoa lehenago dagoela. Ez dakit gosariko jakin-mina iristen den bidaiak hasi aurrekoetara. "Batak ez du bestea kentzen" garaian bizi gara. Eta gezurra da. Batak ia beti kentzen du bestea. Zergatik hasten den bidaiak bat, zergatik bestea. Zergatik ez lukeen hasi behar ez batak, ez besteak. Zergatik batak eragiten duen bestea. Zergatik bata ez hasteko, ez lukeen hasi behar besteak. "Nor salbatuko dugu?" galdera bera tranpa bat da. Batzuk salbu zeudelako lehenago ere, besteak ez direlako inoiz egongo. Batzuk biografia zirelako lehenago ere, besteak zenbaki. Berez, ez zegoen konparatzeko ezer. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Presoak

Judimendi auzoko festetan "auzoko presoek eskubideen alde" antolatutako ekitaldia eta brindisa ikertzeko eskatu dio Fiskaltzari Maider Etxebarria Gasteizko alkate berriak, "delitua dagoen iker dezan, eta, egotekotan, jurisdikzio penalera bideratu dezan".

## Greba feminista

Azaroaren 30ean izango da greba feminista orokorra. Denon Bizitzak Erdigunean prozesua abiatu zuen 2022an Euskal Herriko Mugimendu Feministak, zaintza sistema iraultzeko, eta greba mugarri izango da bide horretan.

## Pablo Gonzalez

Pablo Gonzalezek espetxetik salatu du babesgabe dagoela, akusazio zehatzen faltan. Kazetariak hamasei hilabete daramatza behin-behinean preso Polonian, baina ezin du defentsarik prestatu, oraindik ez diotelako akusazio zehatzik egotzi.

# Norakoa



ULA IRURETAGOIENA

Veneziara itsasotik iritsi behar dela esan didate, gainontzeko irisbideak asebetarik daudelako. Maider Lopez artistak mendialdean egindako auto ilaren kolapso-irudia datorkit burura hau entzutean. Baita Venezia eusten duen lurrrak jendez gainezka egotearekin hiria hondoratzen denaren irudia ere, Titanic baten antzera, itsasoaren urak janda. Egoera larria izanik ere, hiriak jendea erakartzeko makinaria ez du gelditu. Ze ematen du udaldian hirien kolapsoa irudikatzea ez dela arazo, overbooking edo beteta kartela hirientzat ere balio duela, desiragarri bailitza. Hiria gainezka bisitatzea erakargarri geratzearren arrazoa aukeratuen lustrean sentitzeagatik izango da, baina gure garaiko oporren ezaugarri bat izatera iritsi da. Ikus Frantziako Tourrak gurean aurreikusten duena.

Veneziako hondoratzean laguntzeko, udako hilabeteetan Veneziako Arkitektureko Nazioarteko Bienalaren 18. edizioa egingo da, arkitektoak eta bestelakoentzat interes-foko bat dena. Aurten afrikar emakume batek antolatzen du erakusketa, Lesley Lokkok. Londres eta New Yorkeko irakasle izandakoa da eta nobela oparo idatzi ditu, baina Afrikaren aldeko aktibismoagatik fitxatu dute seguruenik. Edizio berria Etorkizunerako Laborategia izendatu du Lokkok, etorkizuna Afrikan dagoela baitio. Deskarbonizazioa eta dekolonialitatea etorkizunaren ardatz jarrita, afro-pentsamendua planetarentzat bereziki baliogarria izan daitekeela argudiatzen da, bietarako leku baita Afrika; bertara begiratzeko keinua egiten du komisariak. Etorkizuna eta Afrika lotzea erakargarria da oso, arkitekturaz gaindiko irudi gisa funtzionatzen du. Eta etorkizuna laborategia da, datorrenaren dimentsio eraldatzailea aurreikustea ezinezkoa delako, eta beraz, plangintzaren aroari laborategiarena datorkiola esan nahi da. Eta aro berrian, afrikarrek, 40 urtetik behar-koek eta emakumeek hitza hartu beharko dute, erakustaldian bezalaxe. Hiria beteko badugu, kontzientziarekin izan dadila. ●



ARTXIBOKO IRUDIA. DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

## Jatorri atzerritarreko alkatea

**GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA**

Titularrak harridura piztu dio irakurlari: "Jatorri palestinarreko emakumea izango da Bermeoko alkatea". Lehen begi kolpea gogorra izan da, tindu arrazistak bistara salto egingo balio gisa. Axola al du palestinarra izateak? *Betikoa* dela pentsatu du, Bermeen jaiotakoa balitz ez genukeela modu berean titulatu.

Pausoa atzera eman eta arnasa hartutakoan, "poza" akaso ez, baina lasaitu apurra suposatu dio Ziburuko Azokan entzundako iruzkin batekin gogoratzeak. Liburu-argitaletxeetako editoreekin egindako mahai-inguruan, aipatu zen eskal literaturan zein presentzia urria duten Euskal Herrian jaio ez baina euskal gizartearen parte diren idazleek, nola euskal literatura euskaraz idazten den, euskara jatorrean tindatzen den eta euskalgintzarekiko gutxieneko atxikimendu bat dutenek egin dezaketen soilik. Gizartea aldatzen ari dela aipatu zen, eta zenbait aldaketa hainbat borroken ondorio direla, emakumeek sorkuntza artistikoan duten parte-hartze handiagoa kasu. "Motel aurrera doan" zerbait dela esan arren, bazterrean daudenek bazterrean diraute oraindik.

Kargu publikoekin ere antzerako zerbait gertatzen da, nahiz instituzioek haien buruei aitortu haien funtzioa dela "herria eta herritarrak ordezkatzeko". Ordezkatzen dituzten ala ez, galdera ikur potolo batekin figura genezake; dena den, bistakoa da, kargu publikoak eta soldata potoloek jarraitzen dutela izaten zuriatzen, bereziki gizonentzat, baina oro har bertan jaiotakoentzat. Adibide bat: Eusko Legebiltzarrean, 75 politikarietatik ez dago inor azal zurikoa ez dena.

Jaiotzez Euskal Herriaz gaindikoak diren denak zaku berean sartzeko asmorik gabe, errepara datuei: 2000. urtean, Hego Euskal Herriko populazioaren %2 ere ez zen Espainiako Estatutik kanpo jaioa; 2022ko datuak hartuta, portzentajea %11 pasatxo da. Zifretan, lau lurraldetan, 250.000 herritar baino gehiago dira jaiotzetik ez dutenak Espainiako Estatuko nazionalitatea.

Inmigrazioaren aurka mintzo ginen lehen, esplizituago bederen. Jabetu ginen gero norberaren etorkizuneko pentsioa ordaintzeko populazio gaztea beharko dugula, eta isildu genituen marmarrak. Normalizatzeko eta planteatzeko ditugu hainbat kontu; egungo eszena publikoa ez da gizartearen isla. ●



68

emakume dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan indarkeria matxista jasan eta dagokion erasotzailearengandik babesteko gailu elektronikoa darabiltenak. Gailuak, ordea, ez daude eguneratuta eta ez dute behar bezala funtzionatzen, salatu dute.

50

kamera gehiago ezarriko dituzte Bilboko tranbian, "segurtasuna" argudiatuta. Bilboko geltoki guztietan izango dira kamerak; alegia, beste 14 geltokitan jarriko dituzte.

16.500

haur inguru esterilizatu zituzten Japonian, txosten batek jaso duenez. Haserrea eragin du albisteak: 1948-1996 artean 9 urteko umeak haien baimenik gabe operatu eta esterilizatu izana onartu du Gobernuak.

*"Galindok soberako merituak izan zituen mailaz igotzeko"*

**JUAN ALBERTO BELLOCH**

Espainiako Gobernuko Barne eta Justizia ministro izan zen Belloch Felipe González-en Gobernuaren azken zatian.

**EL PERIÓDICO DE ARAGÓN (2023-06-24)**



**"IAZ, UPN-K BIDEAN JARRITAKO HARRI GUZTIEN ARTETIK LORATZEN ARI GINELA ESAN GENUEN. AURTEN, HARRI HORIEK JASO ETA GUZTION IRUÑEA ERAIKITZEN ARI GARA"**

**HERRI SANFERMINAK**

**2023-06-23**

*"Uste dugu gaur egun eskoletako Erlijio irakaskuntza ez dela doktrinamendua, pertsona aberasteko funtsezko tresna baizik. Ikastetxeen eginkizuna ez da laikotasuna bermatzea"*

**MARIA EUGENIA IPARRAGIRRE**

Kristau Eskolen ordezkari moduan Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza batzordean hartu du parte, EAEko Hezkuntza Legearen inguruan.

**2023-06-09**



## Teknologia konpontzailea



DIANA FRANCO

**B**ada esaldi bat asko atsegin dudana, baina norena den ez dakidana: “Teknologiak ez ditu beti konponduko gizakion arteko arazoak”. Zientzia eta teknologiari esker, pertsona askok bizitza hobea dugu; dutxa bero bat hartzea teknologiak eman digun luxu handienetarikoa iruditzen zait. Zientzia eta teknologiari esker zenbait senidek bizirik jarraitzen dute, urrun dagoen lagunarekin harremana izan dezaket...

Batzuentzat, teknologia da arazoaren konpontzaile bakarra, eta batzuetan bada. Baina teknologiak bizitzako arazo guztiak konponduko dituela pentsatuz, nire ustez, gizarteak onuragarriak ez diren zenbait agertokietara bideratzen gabilta. Eskolan ikusten dugu, teknologia gelan txertatzeko moduetan. Ikastetxe askotan, ipuin bat irakurtzeko biritan eseri beharrean pantaila handia darabilte, ikus-entzunezkoa baliabide hobea balitz bezala. Ikus-entzunezkoak marrazki ederrak ditu, beharbada ahots polit bat... baina ez al gara zerbait galtzen ari? Hurbil eta ezaguna den irakaslearen aurpegiaren espresioa, gorputzaren mugimendua, ikasle lagunen arteko harremana, irudimenaren zako lekua izatea... Parte izatearen aukera.

Automatizazio prozesuekin antzeko zerbait ikusten dut, ez dut uste gizakion bizitzarako onura asko duenik lan errepikakorrek egiteak. Gizakiok bizitzari zentzua ematen diogu egiten ditugun gauzen bidez, eta beraz lan errepikakor bat badugu, zentzua beste zerbaitetan bilatuko dugu. Lan errepikakorrek desagertzen joango direla diote adituek. Horrek, pertsonak gizarte baten parte izateko dituen aukeren arabera, bi ikuspuntu arin dakartza nire burura: lehenengoa, ordaindutako lan gutxiago egingo dugu, denbora gehiago izango dugu gizartean eragiteko. Bigarrena, denok ez dugu lan ordaindua izateko aukera izango, gure bizitza geratuko da bizi dugun gizarte ereduaren esku.

Beraz, teknologia konponbideak aurkitzeko lagungarria izan daiteke, berau sortzen duen gizarte indartsua bada. Eta horretarako, beharbada, ipuinak pantailan ikusi ordez, biribilean eserita ipuinak kontatzera bueltatu beharko ginatke berriro ikasgelan. ●

## Udaberria Fujian Aretoan

MIKEL ARAMENDI

**B**eranduegi izango da AEBetako presidente Joe Bideni kultura-aniztasuneko lehen ikasgaia irakatsi eta ohartarazteko berak hitz-guinez norbaiti “dictator” deitzen dionean, “dúcaí zh?” aditzen duenak beharbada ez diola iraintzat ere hartuko. Hartarako, lehenik, munduan ingelesa ez beste hizkuntza batzuk ere badirela ulertarazi beharko zaio; eta horrek kultura politikoetako semantikan eragin ditzakeen desdoitasunak aditzera eman, jarraian.

Baina ardura potoloak eta aholkulari-multzo joriak dituen agintaria denez, norbaitek behintzat (gaia inork baino hobeto ezagutu behar duen AEBetako Estatu-idazkari Anthony Blinkenek, demagun) iradoki beharko lioke ez zaiola komeni inori aurpegiatzea... bera erakusten ari den ezjakintasun hori. Izan ere, globo ospetsuaren kontuan, badirudi bere administrazioak etxerako darabilen beldur-ipuina itsu-itsu sinetsita dagoela Biden. Baina horrek ez du ipuina egitate bihurtzen. Eta, batez ere, egia ederki ezagutzen duen beste aldea ez du konbentzitzen ez umilaztzen. Agian, haserrarazi, bai.

Horretan baitago gakoa: egungo AEBen eta Txinaren arteko hartu-emanen korapiloa ez da AEBetako iritzi publiko/politikoaren baitako gorabehera hutsa. Ezta nagusiki ere. Beste aldea ere hor dago, bere interes eta ikuskerarekin. Eta komeniko litzaieke

Bideni eta bere administrazioari haren mezuak aditzea. Autokontsumoko propaganda-dieta gutxituz bada ere.

Beste alde horren mezuak, hitz-identzizkoak direnean, oso gardenak dira, usu. Baina batzuetan, egintzazkoak, omisiozkoak, irudizkoak izaten dira, eta interpretazio-lan pittin bat eskatzen dute. Horietakoa izan zen Blinkenekin biltzeko Txinako presidente Xi Jinping-ek aukeratu zuen aretoa.

Beijingeko Herriaren Areto Handi erraldoian, Txinako 34 lurraldeetako bakoitzak areto bana du eta dekorazio gutiz bereizgarria du bakoitzak. Horregatik, aise antzeman zitekeen Xi eta Blinken arteko bilkura Fujian Aretoan egin zela, “Udaberria Wuyin” murala Xiren atzealdean zela.

Interneteko edozein baliabidek berehala argitzen digu Taiwanen aurrez aurre dagoela Fujian. Are gehiago, garai batean, Fujian probintziaren barnean zegoela Taiwan irla. Eta bi izen horien artean katramilatzen dela itsasarte haren historia. Hain katramilatua, ezen Taiwangoak omen lirakeen Kinmen, Matsu eta beste zenbait irla, Fujiango kosta-ertzari ia erantsita baitaude, orain eta beti.

Horraio etorrita, Bidenek ez bada bere morroietakoren batek irakurri ote ditu arestian zendutako Daniel Ellsberg, hil hurren, argitara eman dituen 1958ko hango krisiari buruzko argibide ikaragarriak? Beste aldeak, seguru baietz. ●



# Suizidioa eta buru osasuna nerabeen artean

Espainiako Estatuko nerabeen **%4,9** bere buruaz beste egiten saiatu dela argitu du ikerketa berri batek. Beste era batera esanda, 20tik 1.

14 eta 18 urte bitarteko gazteen **%12**k osasun mental txarra izateko arriskuarekin bateragarriak diren puntuazioak aurkeztu dituzte.

Emakumeek gizonek baino arrisku handiagoa dute osasun mentaleko arazoak izateko, lehenak **%16,6** eta bigarrenak %6,3.

Antsietateari erreparatuta, **%6**k sintoma larriak ditu.

Depresioaren esparruan, nerabeen **%16**k depresio-sintomatologia larria du.



**ITURRIA:** Espainiako Psikologia Kontseilu Nagusiak eta Psikofundazioak egindako ikerketa. Haur eta gazteen osasun mentalari eta eskola-testuinguruetako esku-hartze psikologikoen eraginkortasunari buruz egin den ikerketa handiena da.

## Prekarietatea

Akordioa lortu dute 2021ean lantokian bere buruaz beste egin zuen Luis Enrique Soriano gaztearen familiaren abokatuak eta Manuel Aizpuru enpresaren ordezkariak. Enpresak Sorianori eragindako min eta kalte moral eta materialak onartu ditu; kalte-ordainak ordainduko dizkie senideei.

## Grezia

Gehiengo osoa lortu du Demokrazia Berria alderdi kontserbadoreak Greziako haustekundeetan (bozken %40,55 eskuratu du). Eskuin muturrak gora egin du, Espartarrak buru dituela. Syrizak botoen %17,83 lortu ditu. "Porrota begi bistakoa" dela azaldu du Alexis Tsiprasek. Abstentzioa %47,18koa izan da.

## LGBTfobia

2017az geroztik bi amarekin jaio diren haurren erregistrotik erditu ez den amaren abizena kentzeko eskatu du Italian Paduako Fiskaltzak. Erregistrotik ezabatuta, bai ama horrek bai bere haurrak eskubide ugari galduko lituzke. Neurria Italiako beste eskualde batzuetara zabaldu daiteke.

# KLIMA ALDAKETA SAIHESTU BEHARREAN, EGOERARI EGOKITU: ARRAZIONALTASUN EKONOMIKOAREN AKATSAK AGERIAN

Joan den otsailean, Christophe Béchu Frantziako Ingurumen ministroak bazterrak harrotu zituen erraterakoan gertatu daitekeen lau graduko beroketaren aurrean prestatu beharko dugula. Adierazpen hori entzuterakoan eta ezohiko sute eta lehorteeek jotako 2022ko udatik atera berri, arriskuaren aurrean estatuak amore ematen zuelakoan zeuden asko. Ministroak hori ezeztatu arren, Frantziatik harago herrialde industrializatuek aspalditik hautatu zuten, saihestu beharrean, klima aldaketari egokitzea.

 NICOLAS GOÑI

**1** 976ean, AEBen *Living with Climate Change: Phase II* ("Klima Aldaketarekin Bizitzea: 2. Fasea") deituriko kongresua antolatzen zuen Mitre Corporation azterketa kabinete militarrek. Sarreran klimaren beroketa laburki aipatzen zen, halabeharrezkotzat jotzen zen. Aldiz, ekonomian izanen zuen eragina zuten gai nagusitzat. Laborantza zaugarritzat jotzen bazuten ere, haien iritziz aski zatekeen ekoizpen zonaldeak iparrera mugitzea (aldaketa hain sinplea delakoan...). Gai horri buruz, 1983an AEBetako Zientzien Akademiak egindako *Changing Climate* ("Klima Aldakorra" edota "Klima Eraldatuz") txostenaren azken kapituluak aitortzen zuen beroketak laborantzan izanen zuen eragina, baina lehen sektoreak pisu guti ukanik ekonomia na-

zionalen (dolarretan), ez zitzaion garrantzi asko eman. Eskualde batzuk hondamendiak pairatuko zituztela aurrerikusten zen, baina horien sakrifizioa beharrezkotzat jotzen zuten –nahiz eta kalteak ordaindu beharko zirela aitortu–, hori gabe horren aurkako neurriek gainontzeko eskualdeen hazkunde (dolarretan) oztopatuko zuketelako. Erresuma Batuan, 1989an, Margaret Thatcherren gobernuak antzeko azterketa egin zuen, eta laborantza ministeritzak azaldu zuen eragingarriak izateko oso gogorrak izan beharko zuketela neurriek eta erresumaren lehiakortasun ekonomikoa izugarri kaltetuko zutela –eta orduan, hor ere, bide horretan ez abiatzea hobetsi zuten–. Energia ministeritzak gehitu zuen Erresuma Batuaren isurketak munduko %3

baizik ez zirela (isurketa historiko metatuak aioski ahantziz), eta Txinaren igoerarekin ehuneko hori txikiagoa ere bihurtuko zela. Beraz, ahalegina klima aldaketa saihestean baino, egokitzean jartzea lehenetsi zuten.

Ardura historikoak ahaztea, errealitatearen neurgailutzat dirua hartzea eta nazioarteko bide bakartzat, elkarlana beharrean, lehia edukitzea: koktel ezagun baten osagaiak prest zeuden jada.

## EKONOMIALARIAK ZENTROAN

Garai berean, William Nordhaus ekonomialaria kalkulatzen hasi zen zenbatekoa litzatekeen klimaren beroketa optimoa, irizpide ekonomikotan, kon-tuan harturik, alde batetik, klima aldaketa murrizteko neurrien kostua, eta



### HAZKUNDEA, KLIMA ALDAKETARI EGOKITZEKO

Garzweiler ikatz meategiko erazketarako makina. XX. mende bukaerako irizpide ekonomiko nagusien arabera, erregai fosilen erazketak hazkundera ondorioztaturik, klima aldaketari egokitzen laguntzen du.

WIKIMEDIA COMMONS

bertze aldetik, klima aldaketaren eraginaren kostua. 2018an lan horientzako Nobel saria jaso zuen. Bere konklusioak arreta deitzen du: mende bukaerarako 4 gradukoa omen da beroketa optimoa, hipotesi horretan BPGa %3.6 bakarrik jaitsiko omen litzateke, eta gauza bera gertatuko omen litzateke berotu baino 4 gradu gutiagokoa izanen balitz tenperatura globala. Hain zuzen, azken Izotz Aroan gaur baino 4 gradu apalagoa zen tenperatura globala... nola irudikatu beraz munta honetako aldaketak gure ekonomietan 2008ko krisia baino eragin gutiago lukeela? Steve Keen ekonomialariak erakutsi zuen Nordhausen lanaren oinarrian hipotesi ahul xamar bat dagoe-la (AEB barruko hirien tenperatura eta BPGaren arteko lotura ekonomialaria

—

**Ikuspegi nagusiari  
bideraturiko kritikek  
ez dute oraindik lortu  
Schellingek lortu duena:  
erabakiguneetan  
narratiba bat  
hegemoniko bilakatzea**

ez den bati arraroa iduri arren) eta konklusioen sinesgarritasuna kolokan jartzen duela. Aldiz, IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak dio, ekonomian ez baina fisika atmosferikoan oinarrituz, 1,5 eta 2 graduren arteko beroketarekin milioika milioi dolarreko kalteak daudela. Tarte horretan, beroketaren eraginak konpontzea baino 70 bider merkeagoa da beroketa saihestea. Zergatik orduan ekonomialariei hainbertze arreta ematen jarraitzen diegu eta klimatologoei hain guti?

### IDEOLOGIA KONTUA DA

1990an, Thomas Schelling ekonomia-ko Nobel saridunak idatzitako *Global Environmental Forces* ("Ingurumen Indar Globalak") tituludun artikulua batek

ongi biltzen ditu garai hartan indarrean zeuden kontzeptuak, eta gakoak ematen dizkigu egindako hautuak beren testuinguruan ulertzeko. Bertan lau ideia nagusi ikus daitezke: (1) arriskua baino handiagoa omen da egokitzeo ahalmena (garapen teknikoak eta produktibitatearen emendatzeak arazoa gainditzen lagunduko gaituztelakoan); (2) irizpide bakarra kostuen eta irabazien neurria da, horren arabera erregai fosiletan inbertitzea positiboa da, hazkundera sortzen duelako eta beraz egokitzeo gaitasuna hobetu; (3) diplomazia gakotua da eta lehia testuinguru batean ezin da interes amankomunik aurkitu; (4) gizakiaren historian zehar aldaketa asko izan dira eta egokitzeo gaitasuna bultzatu dute.

---

## Fisikak, klimatologiak eta historiak gezurtatu arren, indarrean jarraitzen dute klima aldaketa saihesteko ahaleginik ez egiteko argudio ekonomikoek

Hirugarren puntuari dagokionez, egia da gizateriaren gorenko interesak ez direla orain artean lehen planoan ezarri, eta horrek zerikusia du gerra hotzarekin eta horren ondorengo globalizazioarekin. Haatik, bertze hiruen aurkako argudio sendoak ematen dizkigu fisikak: mineralak eta energia mugatuak ditugun mundu honetan, produktibitatea ez da mugagabe igoko eta arriskuak biderkatuko diren bitartean, horiei aurre egiteko baliabide fisiko gutiago izanen ditugu; arrisku biderkorrek eta uzkaiketa puntuak kontuan hartu gabe ezin da azterketa errealistatik egin; eta gizakiaren historian ez da inoiz izan orain bezainbat beroketa azkarrik –eta gure egokitzeo gaitasuna gainditu dezakeenik–.



### THOMAS SCHELLING

Ekonomia liberalaren ikuspegitik, klima aldaketa saihesteko ahaleginik ez egiteko arrazoiak sintetizatu zituen Ekonomiako Nobel saridunak.

## HAZKUNDE EKONOMIKOA

Irabazi ekonomikoegi begira dauden ikuspegiak interesgarriak zaizkie agintari politikoei. Klima larrialdiaz hitz egin eta hazkundeari begira segitzen dute. Thomas Schelling-en eragina handia izan da.



NICK HUMPHRIES

Baina Schelling-en ikuspegiko “arrazionaltasun” hori erabaki hartzaileei esanguratsua zaie –nahiz eta fisikoki bideragarria ez izan–, eta argumentu ekonomiko, geopolitiko eta teknikoaren arteko sintesia eginez, ideologia oso indartsu bat hornitzen die, erabakiguneen balio-sisteman osoki kabitzen dena. Ideologia horrek erraztu ditu klima aldaketa saihesteko ahaleginen murrizketak eta atzerapenak –erabakiak inoiz hala adierazi gabe, debaterik gabe eta herritarrak informatu gabe, batez ere

## William Nordhaus ekonomialariaren lanak hipotesi ahul batean oinarrituak izan arren, 2018an jaso zuen Nobel saria, klimari buruzko bere lanentzat

jadanik klima aldaketaren lehen leerroan daudenak. Ikuspegi honi bideraturiko kritika asko izan dira, baina kritika horiek ez dute lortu Schellingek lortu duena: narratiba bat inposatzea.

Hori izan daiteke beharbada gizarteak klima aldaketa seriooki hartzea nahi dutenen erronka: argumentu fisiko, ekosistemiko eta sozialen arteko sintesia eginez, narratiba indartsu bat sortzea, gizateria lehen planoan jarri nahi dutenen balio sistemarekin bat egiten duena. ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[www.zinkunegioptika.com](http://www.zinkunegioptika.com)



# Elena Martínez de Madina

EGIAZKO IZENEN BILA



## TOPONIMIA ABERASTASUN IKARAGARRIA DUGU ARABAN ETA ZER GUTXI ERRESPETATZEN DEN!



Bizialdia darama Gasteizko toponimia ikertzen. Bateko eta besteko toki izenak jasotzen, forma zuzena eskaintzen...  
Eta toponimiaz galdezka hasi, eta bizi-historia kontatu digu, Gasteiz eta Nuarbe (Azpeitia) loturik, Alizia ahizparen eta Anjel Otaegiren ama Mariáren heriotzekin batera.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

### Zerk jarri zintuen toponimiaren bidean?

Garaian, ez nekien ezer toponimiaz... Zientziak ikasi izan nituen beti, baina ahizpa hil zitzaidan, irakasle zen, eta nik ere irakasle ikasketak egitea erabaki nuen. UBIko hirugarren mailan ari nintzela hil zen ahizpa... Zientzietako adarrean ikasi nuen irakasle, baina, ordurako, ahizparen bidez-eta, euskara ikasten hasita nengoan, eta, irakasle ikasketak bukatu eta euskaraz ikastera joan nintzen Hondarribira, HABEren barnetegira. 1983 zen. Urrian hasi eta Aste Santu arte egon nintzen han. Etxeko egoera hala moduzkoa zen: ahizpa hila, gero aita ere bai, aitona... Ama, amona eta hi-

rurok ginen etxean, anaia zaharra mediku ikasketak egin eta bere bidea egiten ari zen. Hondarribira joateko dudatan nengoan, baina amak joateko esan zidan.

### Zerk jarri zintuen sasoi hartan euskaraz ikasten?

Anaiak, eta, batez ere, ahizpak. Irakasle ikasketak bukatu, eta Nuarbera joan zen, 1977an.

### Ahizpari izena jarri beharko diogu...

Alizia zuen izena. Lau neska joan ziren, irakasle ikasitakoak. Alizia, Bego, Esther eta Itziar [Puelles]. Bego eta Esther irakasle izan dira Gasteizen, Barrutia ikastolan, eta Itziar, berriz, nuarbetar ba-

tekin ezkondu, eta Azpeitiko ikastolan gelditu zen andereño. Arabako Diputazioak Euskara zerbitzua-edo sortu zuen, Visitación Oiartzabal zen buru, eta hark egin zuen plana. Nire ahizpa-eta lehenak izan ziren hara joaten, esperientzia pilotua izan zen: baserri banatan jarri zituzten, ez laurak etxe batean. Gogoratzen naiz autoa hartu eta ahizpa Nuarbera eraman genuela. Eta, hala ere, Nuarbera joan behar zuela etxean esan zuenean, galdera bera egin genuen denok: "Eta non dago, bada, Nuarbe hori!?"

### Hantxe, beti egon izan den tokian...

...Lohisoro baserrira eraman genuen. Kortatarrak ziren haiek. Lau seme-ala-





# Elena Martínez de Madina Salazar

GASTEIZ, 1962



Filologoa, toponimia du ikerketa arlo, eta ikerketarekin batera, dibulgazioa. 1996az gero *Onomasticon Vasconiae* izeneko lanean ari da, Gasteizko eta udalerriko herri, kontzeju, auzo, kale, ibai, etxe eta gainerakoen izenak jasotzen, ikertzen eta forma egokia ezartzen, eta lanari buruzko liburua publikatzen bi urtez behin, Euskaltzaindiarentzat. Prentsan, irrati eta telebistan kolaboratu ohi du. Euskaltzain izendatu zuten 2013an.

ba zituzten: Jose Inazio, Juan Karlos, Xabier eta Josune... Lohisoro Nuarben dago, baina ez Nuarbeko kalean ere, aurrerago joanda baizik, aparte! Ikasurte hasiera izango zen, iraila-edo, eta euria ari zuen, egun iluna... Lohisoron oso ondo hartu gintuzten, baina, hala ere! Gu Gasteiz-Gasteizen bizi ginen, Probintzia plazan! Lohisoro, berriz, baserri bakartua zen! Gogoratzen naiz, itzuleran, amak esan ziola aitari: "Ai, Antonio, baina non utzi dugu gure alaba?". Ahizpak hantxe egin zuen urtea, euskara titulua atera zuen gero, eta Olabide Ikastolan hasi zen ondoko kurtsoan. Bi urte egin zituen Olabiden, 1980an hil zen-eta, abuztuaren lehenengoan, trafiko istripuan. Nuarbetik Azpeitira joan zen María Otaegi [Anjel Otaegiren ama] eramatera, eta itzuleran, istripua izan zuten. Biak hil ziren.

## Zer oroitzu duzu Aliziaren heriotzaz?

Ni udako kanpamenduetan nengoen, Korresen, eta, bitartean, Lohisoroko bi seme nagusiak, Jose Inazio eta Xabier, Gasteizera etortzen ziren, bateko Gamarrara eta besteko piszinara. Urte hartako uztailaren 27an, Santiago eta gero, beraz, ni nengoen kanpamendura etorri ziren -Alizia eta Nuarbeko bi umeak- eta-, ni agurtzera, Nuarbera zihoazen-eta, Azpeitiko festetara. Orduan hil zen Alizia, Otaegiren amarekin. Berez, Bego bizi zen Mariárekin [Otaegi], ez Alizia, baina Begok eta Aliziak, Nuarben elkar ezagutu eta konplizitate handia izan zuten lehen unetik.

Ni neu ere hainbat aldiz joan nintzen Nuarbera, ezagutu nituen María [Otaegi], eta Mertxe, ahizpa zuena. Honek, nire adineko alaba zuen Mari Mertxe [Urtuzaga, ikus ARGIA 2.476 zbkia] eta haren lagun egin nintzen.

## 1980ko abuztuaren lehena, trafiko istripua, hil ziren zure ahizpa Alizia, eta María, Anjel Otaegiren ama...

María Otaegik bisitaren bat izan zuen, edo zerbait egin beharra Azpeitian, festetan, eta Aliziak eraman zuen. Egitekoa egin eta, itzuleran, istripua izan zuten Nuarbera heltzen ari zirela, bihurgunean. Eta hil ziren... Kanpamendutik etxera etorri berria nintzen,

eta etorri biharamunean, piszinan lagunekin nengoela, txorizo-tortilla jaten eguerdian... abisua megafoniatik, Elena Martínez de Madina piszinako sarrerara joateko. Etxera joateko esan zietela. Etxera heldu, eta gurasoek esan zidaten Aliziak istripua izan zuela eta oso larri zegoela. Ordurako hilda zegoen baina. Aita oso urduri zegoen, autoa hartzeko gauza ez, eta taxia zuen lagun bati deitu behar izan zion. Eta abiatu ginen, kezkatan. "Ai, eta nolako ospitalea edo zer izango ote dute han?".

## Azpeitira heldu zineten.

Eta osasun zentrora-edo heldu ginen. Eta esan nien gurasoei: "Lasai, galde-tuko dut nik". Eta autotik atera eta sartu nintzen dena delako sendategira. "Zera nator... istripu bat... Gasteizko neska bat...", eta hangoak: "A, gaur eguerdian hildako neska!". "Adios! Hilda dago?". "Bai, eta gorpua Nuarbera eraman dute". Eta autora sartu, eta gurasoei "berri ona" eman behar izan nien. Eta Lohisorora. Hantxe zegoen gure Alizia, hilkutxan sartuta. Hurrengo eguna arte ezin izan genuen Gasteiza ekarri, gure ama hantxe utzita, beilan.



**Nire iritziz,  
'intelektualitateko'  
goi mailako jendeak beti  
uste izan du dibulgazioa  
herri xehearen  
gauza dela"**

**Zure bizitza markatu  
duen mugarrietako  
bat dugu, duda  
gabe. Haatik, zure  
toponimia lanak  
ekarri gaitu zugana.  
Filologia ikasten  
ari zinela jo zenuen  
toponimiara?**

Ez! Filologian ez da toponimiarik ikasten! Euskara titulua atera, eta lanean hasi nintzen. Jesus Langilen ari nintzen, baina Udaberria Euskaltegian ere euskara eskolak eman nituen, funtzionarioentzako ikastaro trinkoak-eta, eta ez zegoen ikasleei huts egiterik. Bestalde, besterik egin behar bazen, egiten nuen! Oso lo gutxikoa naiz, eta, gauez, estudiatu egiten nuen. Fakultatera joaten hasi nintzen, baina laster ohartu nintzen kasu askotan ez zuela joatea merezi, hobeto zela artikulua irakurtzea. Ez nuen denbora alferrik galtzen ibiltzeko asmorik.

## Zientziak ikasia zinen ordu arte.

## Nola moldatu zinen filologian?

Laguntzaile bat hartu behar izan



nuen latina ikasteko. Egokitze mailan ginen, ehunka lagun, gehienak lanean ari ginen, eta inork ez zuen latina gainditzen. Eta, aldiz, latina izan zen nik gainditu nuen lehen gaia! Neure bideari segitu nion, neure saltsa guztiekin aurrera, eta filologia bukatu nuen. Ordurako, ikaragarri gustatzen zitzaidan ikerketa. Behin, Patxi Goenaga eta Henrike Knörri joan, eta esan nien: “Ikerketa egin nahi dut!”. “Zer ikertu nahi zenuke?”, haiek. “Ez dakit, berdin dit!”... Halako batean, ikerketa talde bat osatu zen, Henrike Knörr tarteko zela. Galde-tu nion: “Zertaz ikertuko dugu?”. Eta Henrikek: “Toponimiaz”. Bibliotekara joan behar izan nuen toponimia zer den begiratzera, toponimiaz idatzitakoa biltzera... Ez nekien ezer! Eta, bestalde, ni hiritarra naiz, kalekumea!

### **Baina hirian ere bada toponimia.**

Bai, baina hori deskubritu egin behar da, eta horretan saiatzen naiz, horixe irakasten. Irratsaio batean parte hartzen dut, eta “Basoa kalea”, eman dezagun. Horixe da toponimoa, “Basoa”, eta horretarako da toponimia, gure hizkuntza zein izan den erakusteko, besteak beste. Toponimian denetarik gertatzen da, izen batzuk mantentzen dira, beste batzuk desagertzen, batzuk itzultzen, eta beste batzuk desitxuratzen. Eta ezer ez nekiela hasi nintzen, eta horretan ari naiz oraintxe ere.

### **Zein da toponimia ikertzailearen lehen lana?**

Lehena, metodo zientifikoaz jabetzea: metodoa, sistema... Ikertzen ikasi behar du ikertzaileak. Nire kasuan, Gasteiz

udalerrria aztertu dut, sakon, hau da, 63 herri! Horrek esan nahi du joan den bost mende honetako dokumentazioa aztertu behar izan dudala, orriz orri, toponimoak jasoz. 1996an-edo hasi ginen lan horretan, baina garai hartan ohi zenez, edozein modutan. Gaur bestela egingo genukeen. Gaur egun, 500.000 erregistro ezberdin baino gehiago ditut, toponimoak denak, nahasturik. Horiek ordenatzea sekulako lana da. Hasieran, historialariz osatutako talde batekin egin nuen lan, neu nintzen filologo bakarra. Eta izen nahaste-borrastea ordenatzeko programa diseinatu behar izan nuen. Urteak behar izan ditut izen-marabunta hori ordenatu, eta ikertzen hasteko.

### **Eta ikertzen hasi eta, zer?**

Eta ikertzen segi! Eman dezagun, *Jeniturri*, hemen Gometxako toponimoa. Jeniturri... *iturri* duzu, behintzat. Badirudi ura dagoela. Eta *jen* hori, zer da? Eta, are, non dago leku hori, zehazki? “Halako lekutik bi balezta-tirotara...”, edo “halako lekurekin mugakide da...”. Alegia, halako azalpenak ageri dira dokumentuetan, askotan zehaztasunik ez dute, edo erreferentziak ez daude ondo jasoak, edo eskribauak –hura ere ez baita hemengo izan–, ez du dena delako tokiaren izena ulertu eta ahal duen moduan idatzi du. Eta hasten zara hipotesiak egiten, edo puzzlea egiten!

### **Eta zer da dena delako *Jeniturri* toki izen hori?**

Entzun: bazen “aditu” bat, gizonezkoa, nola ez –gizonezkoek dena dakizue-eta, nonbait–, halako hipotesi bat zuena, artikulua bat egiteko prest zegoena –utzi egin behar nion artikulua publikatzen, zeharo aldrebes zebilen-eta–, baina halakorik ez idazteko esan nion. *Jeniturri... axariturri* duzu, azeri iturri! Joan eta harapatu!

### **Zein gauza eder!**

Bai, oso ederra, baina inork ez du kasurik egiten! Kar, kar... Jendearen sentsibilitatearen arabera da hori, eta, adibidez, Gasteiz oso toponimo-gordezalea izan da, kale izenak ikusi besterik ez dago. Halako lekuri izen bat jarri aurretik, askotan egin izan didate kontsulta: “Elena, begiratu didazu hiriko alderdi horretan zein toponimo ditugun?”. Halaxe etorri dira izen asko: Zabalgana, Salburua, Borinbizkarra... Eharin, *Boronbizkarra* esaten dute, eta bertara joan behar izan



nuen, izena azaltzera, gauzak azaldu egin behar baitira! Zertarako ikertzen dugu, bestela?!

### **Ez dela azalpenik ematen, esan nahi duzu?**

Nire ustez, oso gutxi. Nire iritziz, “intelektualitateko” goi mailako jendeak beti uste izan du dibulgazioa herri xehearen gauza dela. Ez gure inguruan bakarrik. Unibertsoa ulertzeko, adibidez, hortxe Carl Saganen lana. Haren bidez ez dugu dena ikasiko, baina zenbait beldur uxatuko ditugu, behintzat. Carl Sagan ez zen herrena! Eta, aldiz, XX. mendean, ematen du dibulgazioa bigarren mailako gauza zela. “Ez dute ulertzen...”, dio ustezko intelektualitateak, eta nik esaten dut: “Bada, azaldu beste modu batera, jendeak ulertzeko moduan!”.

### **Dibulgazio zalea zara zu.**

Ahal dudan dibulgazio lan guztia egingen dut! Hamasei urte daramatzat Radio Vitorian, eta zazpi urtez hartu dut

parte *Egun on, Euskadi* telesaioan. Eta inoiz ez zait inor etorri nik esandakoa zuzentzeko esatera. Berdin, egunkarian idazten ditudan kolaborazioen kasuan: inoiz ez dut koma bat aldatu behar izan, ondo pentsatuta idazten ditut gauzak. Hitz egin bai, solasaldietan parte hartu bai, baina zorroztasunez, beti. Horixe da dibulgazioa, nire ustez. Aurten, udarako ere deitu didate, irratsaio batean parte hartzeko, baina ezetz esan nien, Gasteizko toponimiari buruzko hurrengo tomoa bukatu behar dut! Eta ni, zer esango dizut, bada, autonomoa naiz. Toponimia lan hau datorren urtean bukatuko da, eta ikusiko dugu gero zer datorren... Baina, horixe, ezer ez nekiela hasi nintzen toponimian, baina izugarria da, hor gure hizkuntza dago eta!

### **Hori poza zurea!**

Bai, bada! Eta irratian, eta jendeak deitzea, halako izen edo halako deituraz galdezka, eta azalpena ematea, eta entzuleak ulertzea... Poza, ez txikia! Izen

hauek gure-gureak dira, gure hizkuntza da. Izen batzuk desitxuratu dira; beste batzuk, aldiz, bere horretan gorde dira. Izugarria da! Hizkuntza, toponimia... izugarria da dena! Toponimia aberastasun ikaragarria dugu Araban eta, berriz, zer gutxi errespetatzen den! Zer gutxi errespetatzen diren Arabako toponimia, Arabako hizkera, Arabako kontuak. Hortxe beti EiTbN Azazéta, Lazarrága, Ilárdúia... baina gure hizkeran Azázeta, Lazárraga, Ilárduia ditugu. Arabako hizkera ondoko herrialdeetako bezain on eta zuzena da!

### **Errespetu eske ari zara.**

Bai, bada! Arabako hizkerak aspaldiko euskararen azentua gorde du. Hemen Bírgara da, han Bergára. Errespetu gutxi haiek [bizkaitar eta gipuzkoarrek], eta konfiantza gutxi, berriz, guk, arabarrok. Aberásturi, hemen; Aberástúri Bizkaian. Zuzenak dira biak, baina Araban garai bateko doinuari eutsi diogu, eta gainerakoetan, aldiz, ez. Ez da bata bestea baino hobea, zuzenak dira biak, eta kito, baina ez inorena bertakoen gainetik jarri! Hemen Azázeta, Ilárduia, Aberásturi... dira, Arabako hizkera errespetatu behar da! ●

“  
**EiTbN Azazéta,  
Lazarrága, Ilárdúia...  
baina gure hizkeran  
Azázeta, Lazárraga,  
Ilárduia ditugu. Arabako  
hizkera ondokoena  
bezain ona da”**



## Armeniaren bakardade geopolitikoak



ASIER BLAS MENDOZA  
EHU-KO IRAKASLEA

**A**rmeniak urteak daramatza bere karta geopolitikoak, berez oso txarrak direnak, gaizki jokatzeko. Herrialdea Kaukaso hegoaldean dago zokoratuta itsasorako irteerarik gabe, ekonomia ahularekin eta eskualdeko lurralde eta populazio tamaina txikiarekin. Hori guztia gutxi balitz bezala, etsai historikoak diren turkiar herriek (Turkia eta Azerbaijan) inguratzen dute. Georgiarekin ere muga konpartitzen du, baina harremanak ez dira bereziki onak. Iranekin, aldiz, muga zatitxo bat partekatatu eta helburu ugari konpartitzeko aukerak ditu. Teheranek Armeniako inpendentzia eta lurralde batasuna segurtatu nahi ditu turkiar herrien lurreko konexioa oztopatzeko eta etxean dituen gehiengo azeriarreko lurraldeen irredentismoa apaltzeko. Baina armeniarrek ez dute behar bezainbeste ustiatu aliantza posible hori, Iran Mendebaldearen etsaia delako.

Erevanek Mendebaldearekin lerrotu nahi duen arren (NATOarekin eta Europako Batasunarekin lankidetzan esparruak ditu), errealismo politikoagatik errusiarren babesa bilatzen amaitu du ia beti. Moskuk Erevan aliatu ez leial gisa ikusten du, baina, Karabakh Garaiko gatazkari esker, Armeniak Errusiak gidatzen dituen Segurtasun Kolektiborako Itunaren Erakundean edo Eurasiako Batasun Ekonomikoan parte hartzen du.

Halere, 2018ko mobilizazioen ondoren Nikol Pashinyan lehen ministro

Armeniak Mendebaldearekin lerrotu nahi duen arren, errealismo politikoagatik errusiarren babesa bilatzen amaitu du ia beti

izendatu ostean, gobernu berriak Mendebaldera hurbiltzeko eta Errusiatik urruntzeko zuen asmoak herrialdea irteerarik gabeko kale batean utzi du, horregatik, horri aurre egiteko Pashinyanek Azerbaijanen aurrean amore ematea erabaki du, eta publikoki adierazi du Armenia prest dagoela Karabakh Garaiko soberania azerbaijandarra onartzeko. Trukean Pashinyanek egun Azerbaijanek mehatxatzen dituen nazioarteko armeniar mugak segurtatu nahiko lituzke, nahiz eta ez dagoen batere garbi epe ertainean Azerbaijanek horrelako akordio bat errespetatuko lukeenik. Azerbaijanek Armeniako hegoaldea eskuratzeko interes berezia du, Nakhitxevan eskualdea gainerako Azerbaijanekin lotzeko eta, ondorioz, mundu turkiarra Istanbuletik Bakuraino lurrez konektatzeko. Hori

gerta ez dadin, Armeniako Gobernuaren esperantza inuzentea da Mendebaldearekin harremanak estutzea.

Bitartean, Bakun nazioarteko harremanen logika ondo ulertzen dute. Azerbaijan ikuspegi geopolitikotik Kaukasoko herrialde garrantzitsuen da: lurralde zabalera eta populazio handienak ditu eta ekonomia sendoa da petrolioa eta gasari esker. Geopolitikoki turkiarren aliatu sendoa da eta Mendebaldearekin, armeniarren kaltetan, harreman ekonomiko eta politiko oso onak ditu. Errusiak berak Azerbaijanekin negozio asko egiten ditu, aliatua ez, baina Moskurentzat bazkide fidagarria da, ez baititu egiten Armeniak egiten dituen hanka-sartze geopolitikoak, Mendebaldeari atsegin emateko.

Azerbaijan seguru sentitzen da bere aberastasunagatik, baina baita mapan non kokatuta dagoen ondo asimilatua duelako ere, Georgia eta Armenia ez bezala. Izan ere, azken horiek batzuetan aritzen dira Asian egon beharrean Europan egongo balira bezala. Baina errealitatea da Kaukasoko herrialde kristauak Asiako txoko batean daudela lekututa. Errealismo politikoak eskatzen die ekialdera begiratzea. Armeniaren kasuan, esportazioen ia erdia Errusiara doa eta heren bat Asiara. Horregatik, Erevani gustatu ala ez, Armeniako Estatuaren biziraupenak zerikusi handiagoa du ekialdera begiratzearekin, Mendebaldea seduzitzearekin baino. ●

# Ondoko geltokia: esperantza



BEIA SALABERRI  
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

**T**rambusaren ateak lerratu dira, zabalik utziz pasaia jaisten den jendeari. Kaia dei genezakeen espaloian, bi lerrotan antolatuta gara: igo nahi dutenak batetik eta bestetik jaisten direnak. Azkenean, txanda heldu zaidanean igaiteko, hogeita zenbait urteko emazte bat aitzinatu zait hozki; agian jarleku bat ukaitea segurtatzeko, hala uste izan dut. Doblatsu nauenean, haren mugimendu idorraz ohartu naiz, haren hazpegi gogortuez, haren ezpainen tinkotasunez. Eta hark jarleku bat aurkitu du; nik ez. Geltokiz geltoki goazela, haren aire satisfosa uste dudanari, erantzun diot kasik mespretxuz, haren gainaldean, beroaren eta autobusaren bultzen erdian, betaurreko beltzak berriz hozkan ezarritz.

Lau geldialdiren ondotik, ohartu naiz negarrez ari dela, harrabotsik gabe, ur xirriztak begietatik ateratzen zaizkio tai gabe, aurpegiko beste gihar bakarra mugitu gabe. Noiztenka, ahurrean tinkatzen duen paperezko mokanesaz xukatzen ditu malko iturriak. Momentu baten buruko, mokanesa blaiturik, gainezka ikusi dut esku beteaz matelak torratzen.

Hastapenean, ene jarrera aiuta eta arras gehiegizkoarengatik negar egin

lezakeela pentsatu badut ere, argi dut orain ez dela hainbesteko etsipenaren arrazoa izan. Eta hor sinets ala ez, ez dut jakin zer egin.

Ni bezalako pertsonak ez dute lotsarik, ezezagunei zuzentzeko, adibidez; ez gara beldur ez poliziak gurutzatzean, ez seguritate arduradunek begiratzen digutenean, ez kontrolatzaileen taldea autobusera igotzen denean. Oker naitzenean edota kitzikatzen nautenean ez naiz erantzuteko lotsa. Egia da, ene erantzunek, tupustekoek sustut, badutela hitz-tirokadaren antza zenbaitetan, ez direla beti egokiak, ez pausatua, gaiztoak berdin. Eta, putxaz, pena eman nezake, hain harro, mutu, galdu eta inutil.

Mokanesik ez niezaioke eskaini, ez baitut, eta auskalo nola hartuko lukeen, gainera, haren pena hain ikusgai utz dezadan, galaraz diezaiodan tristezia ia ikusezin duin hori. Ondoan duena, ni baino lehenago ohartua zen segurki, edo beharbada ez oraindik, sudurra smartphoneari kolaturik dago, behakorik altxa gabe. Parekoa, duda izpirik gabe egoeraz oharturik, egunkaria ahal bezainbat eta anormalki gora altxatuz irakurtzen ari da, gorderik paperezko hesiaren gibelaldean.

Mekanikoki, altxatua den egunkariko titular eta idazpuruak leitu ditut, hutsalki: erretreten erreformari men ez egin; ezker-rra KO ote; ZAD: Frantziaren barne etsai berria; BRAV-M: nor dira eta zertarako; 18-60 urtekoen artean, %13 depresioan. Horretan gelditu naiz, ez baita, agian, hori baino anitzez urrunago bilatu behar isilik eta uharka negar egiteko arrazoirik.

Autobus eta garraio publikoek orokorrean, ikerketa soziologikoak horni ditzakete urteetan zehar, horretaz ez dudarik aspaldian, ez baita gertatzen egunik zer konta ematen ez dutenik. Gaur, bakoitza egon da bere erredola pertsonalarekin, dela betaurreko, dela egunkari, dela telefono, dela mokanes. Elkar lagun genezakeen, hitz zenbaitekin, keinu batez, kuraia desiratuz elkarri. Horren ordez, beste guztiak jaitsi eta gero ere, azken geltokiraino irauin dut, xutik, kasik penitentziaz bezala.

Zutabe hauen artera itzultzea ospatzeko eta horrek ematen didan pozaren adierazteko, gertakari alaiago zenbait konta nezakeen? Egia da. Baina iragan negu eta udaberrian zehar gertatuek ez didate oxitoxina tasa zapartarazi, ez. Eta, jakina, gauza alaiak ez ohi naute berdin inspiratu. ●

## Duinetik adina



IÑAKI MURUA  
BERTSOLARIA

**D**enok ez gara iristen erretiroa gozatzera eta irtenbide zaila dauka, gazterik amaitu nahi ez eta hainbeste gaztetasun behin pilatuko, eta orduan, kito? Hala gertatzen bada, norberari ez ezik Imsersori eta negozio asmoz sai direnei ere min galanta.

Familiaren egoera ezin hobeto ulertuta, adinaren “zama” beregain hartzeko ardura, eskarmentua, gaitasuna, hurbilekoen ezjakintasunak eta neurritz gaineko okupazioak saihestuta... Mauka da hirugarren adinera iristean ezagutu dezakeguna.

Hala ere, bihotzeko zimikoa sentiarazi didana zera da: “Har ezazu aitona nahiz amona bat adopzioan”. Erretiroa hartutako askok kontratatu ditugun aseguru etxeen iragarkia. Bakardadean etsiturik eta ingurukoen beroa falta duten adinekoekin ekintzak eta jardunaldiak gauzatzeko asmozko iragarkia omen, irabazien %1, beste zeregin batzuen artean, horretarako erabiliko dute. (Ez beste hark zioen bezala, jubilatatu gehiegi dagoela eta batidak antolatuko lituzkeela basurdeak bakantzeko egiten diren gisakoak!).

Hauxe da geure zapatetan jarri gabe geuk baino hobeto zer behar dugun argitu nahia, hau. Behin adin batera iristean nire premiak beste inork

ez bezala ezagutzen dituztela, diote. Eta gure bizia inolako “trabarik” gabe egiteko eta buruko minak arintzeko asmoz, geure arbasoak balira bezala, geuk geure burua ere baino hobeto zainduko omen.

Duela ez hainbeste, adineko jendeak ez zuen oporrik ezagutzen, ezta erretirorik jasotzen ere, lanerako bizi ziren! Asteazpi egun lanean aritutako baserritarrak, gorputza ia bi doblean, igandetan lana egitea debekatzen zuten elizako aginduak bete ezinik, baina behiek egunero jaten dutenez, infernua lurrean bizi beste aukerarik gabe...

Edo Jainkoak emandako haur denak ekartzen jardun eta gereziak baino perretxikoak biltzeko postura hobean, gerriko minez oker-oker, hanka hankaren parean pasa ezinik dabilen amona... nork ez du ezagutu?

Eskarmentutik ikasten da benetan eta liburuetatik teorian, beraz, gure geuroa geuk antolatuta hobe, eta balizko laguntza eskuzabal hori, nahiago nuke gaurko gazteen etorkizuna –zotina kentzeko moduko hipotekaz josia– argituko duen egitasmoetan inbertitzea. Gazte *mileuristak* gehienak, *Euriborroaren* aldaketan beldurrez eta Gizarte Segurantzak iraungo duen ziurtasunik gabe...etorkizuna! ●

## Ideologia bihurtzeraino



EDU ZELAIETA ANTA  
IRAKASLEA ETA  
IDAZLEA

**I**kasturtea bukatu aurretik jakin dugu berria: Suediako Gobernuak eskolak digitalizatzeko plana gelditu du. Ezusteko albistea inondik ere, inor gutxi espero baitzuen Suedia bezalako estatu batek galga emanen zionik hezkuntza sistemaren digitalizazioari. Erabakia, gainera, ez dute edozein testuingurutan hartu Stockholmen: eskolak digitalizatzeko plana bizkortu behar zuen Suediak 2023an. Beraz, agudoago eta digitalki joateko aginduaren aurrean, “mantsoago eta ez honela nahitaez” erantzun dute.

Oihartzun handia izan du aferak, eta iri-

tzi askotarikoak sortu ditu hor-hemenka. *Le Monde* egunkariak, adibidez, osasunaren atalean sailkatu du albistea (ez hezkuntzan, ez teknologian). Beste batzuek erresistentzia keinu indartsua ikusi dute espero gabeko mugimenduan: posible da ezinbesteko digitalizazioaren jainkoari aurre egitea; bai eta haren *lasterkraziari* ere.

Ikasgelak pantailaz betetzea hezkuntza sistemen helburu nagusietako bat izan da azken urteotan. Gero eta gehiagok salatzen dutenez, modu akritikoan. Gero eta gehiagok diotenez, ideologia bihurtzeraino. ●

# Dones més enllà de les armes



**ITZIAR MORENO**  
EUSKAL PERTSONA  
POLIFAZETIKOIA

**E**makumeak armen haraindian Katalunian antolatzen diren jardunaldi transfeministak dira. Bertara gonbidatzen dituzte munduko gatazka armatuen parte eta protagonista izan diren emakumeak\*, euren istorioak kontatuz: Kolonbia, Alemania, Italia, Nikaragua, Palestina, Kurdistan, Euskal Herria, Irlanda, Kanariak, Guatemala... Partaideen ideiak, estiloak, hizkuntzak zein militantzia eremuak era askotariakoak dira, lurberako ezker erradikaletik eratorritako andre, trans, bollera edota identitate ez bikoitidunak, anarkismotik edaten dutenak nagusi.

*Isiltasuna boterearen gaizkidea denean, memoria borroka da dio jaurdunaldien lema. Preseski, memoria ariketa kolektibo bezain auskaria da hauxe, borroka erako pasioa lagun eta zapalduen arteko elkartzasuna oinarri duena. Funtsen: iraganetik ikasteko grina, orainari aurre egin eta etorkizun askeak eraikitzeko. Ezinbesteko irakaspena Euskal Herrian, gatazkaren kontakizunean, edo, hobeki esanda, kontakizunaren gatazka bete-betean gauden honetan.*

Gurean ez dugu askatasunez hitz egiteko aukerarik; kontakizunetik kanporatu gaituzte, errealitatetik zokoratu,

Denak balio du diskurtso ofiziala irentsarazteko eta, kontakizun bakarraren inposatze horretan, gurea debekatu eta zigortzen jarraitzen dute

nor garen ukatzeraino. Ezin ditugu gure usteak eta zergatiak azaldu, gertakizunak guk bizi izan ditugun moduan kontatu, geure Historia idatzi. Estatuak, ordea, masa-komunikabideen munstroa inoiz baino bortxa handiagoz elikatzen dute: ohikoak, serieak, filmak, sareak... Beti lez, denak balio du diskurtso ofiziala irentsarazteko eta, kontakizun bakarraren inposatze horretan, gurea debekatu eta zigortzen jarraitzen dute.

Aitzitik, Historia ezin da ezabatu, gertatutakoa oso presente baitago memoria kolektiboan. Edestia irabazleek idazten omen dute; aldiz, nik uste dut herriak egin ahal/beharko lukeela. Odolez eta malkoz izkiriatu dugu dagoeneko; irabaztea, oster, gure esku. Bada, ekimen herritar oro da garrantzizko, baita xumeena ere, gatazkaren kontakizunari bestelako ikuspegi ausart bat emateko. Horiakin guztiekin osatuko dugu Euskal Historiaren idazketa.

Ekinbide horretan, Kataluniako jardunaldiak dira aletxo eredugarri bat. Krestak, titi askeak, ileak, zapiak eta elastiko aldarrikatzaileak, bizarrak eta loreak, barreak eta negarrak, sumindura, maitasuna, itzultzaile nekazekin, liburuak, fanzineak, pegatak, afixak, opil eta hitz gozoak, gutzia beganoak, kontakizun gogorak, emakume\* eredugarriak, elkarrizketak hamaika hizkuntzatan, hartu-eman politiko amaigabea, perfekzio eza eta koherentzia bikaina, musika uterotik garrasika, besarkada zenbaezinak, burmuinak eta ukabilak puztuta. Bartzelona borroka giro bizi-bizian. *Gràcies a totes, sou exemple* (Eske-rik asko denei, eredu zarete). ●

**ERAKUSKETA**

Murtearen 50. urteurrena

*Zaneta*

**Maiatzak**

**15**

Sutegin Usurbil

<https://650usurbilbizi.eus/agenda>



*Zaneta*

Murtearen 50. urteurrena

**50**

1973 - 2023

**650**

USURBIL

*bizi*

Usurbil Turismoa

**Eman izena!**

**USURBIL MUSEO**

**IREKIA**

**Bisita gidatuak**

**Maiatzak**

**6 - 7**

**13 - 14 - 17 - 28**



**EKAINAK 30 JUIN » UZTAILAK 01-02 JUILLET**

*Etengabe  
azalberritzen*

**IRISARRI**



**EHZ**

**SOULFLY**

**FM BELFAST**

**GATIBU ADA ODA**

**ZETAK BELAKO KOLINGA**

**WILLIS DRUMMOND KRISTONAK ZTAH AFRIKA BIBANG**

**ANO ZAKIL KONEKXION KRAV BOGA MADMADMAD ARIMA**

**AKTS MICE LIHER DIA ! DJ'S TXIKI ESTELLE.D**

**FRANÇOIS DEL MUNDO J MARTINA MANDARINE VAPA**

**DAUDANE KUMA NO MOTOR HABIA SOFA MUARE**

**ALARMA MOREA NIZE BILLIE BRELOK RTZ KOLEKTIBOA**

**TXARANGA JAIK BILABAL ZO-ZONGO PISOO & OPH**

**IXTAKLOK CUMBIAM'BERO HIKA TEATROA ETA OINKARI**

**ATZARBALE TARTEAN TEATROA PATXARANGA ALTXALILI**

**ERTZA BAHEZ OTXO TXINGILI'K GOXUA'N SALSA CIE ZEC**

**QUATUOR INABE...**

# Ukraina

## Gerraren nondik norakoak

Rafael Pochen analisiak maitatza bukaerako gerraren argazki bat ematen digu, Errusiak Bakhmut hartu zueneko. Hori, bere aburuz, Errusia gerra irabazten ari den seinale da. Gerran malda bat gora eginez erantzun du Mendebaldeak. Artikuluan, Pochek eskaintzen digu Mendebaldeko hedabide handietan jasotzen ez den egoera orokorrari buruzko begirada.

 **RAFAEL POCH** / **ctxt** Artikulu hau Ctxt-k argitaratu du eta  
CONTEXTO Y ACCIÓN CC by-sa lizentziari esker ekarri dugu.



ZUMAPRESS

Volodymyr Zelenski, Ukrainako lehendakaria.

Errusiako armadak edo, hobeto esanda, hari lotutako Wagner taldeak, aste honetan amaitu du Bakhmut konkistatzen. 2016ra arte, gaur egun hondakin bihurtutako Donbasseko hiri horrek Artiomovsk zuen izena, Fiodor Sergeyev buruzagi boltxebikearen omenez (bere gerra-izena Artiom zen). Sergeyev Donetskeko Errepublikaren inspiratzailea izan zen Errusiako gerra zibilean, eta 1918an borroka egin zuen atzerriko interbentzionisten, errusiar zurien eta ukrainar nazionalisten aurka. AEBek eta Europar Batasunak Kieveko herri-matxinadaren berotasunean babestutako erregimen-aldaketaren erreakzio gisa, Donbasseko biztanleek 2014an Donetskeko Herri Errepublika aldarrikatu zuten, eta errepublika berria 1918ko lehen errepublika haren oinordeko izendatu zuten. Beraz, 2016an, Petro Poroxenko Ukrainako presidentek hiriaren izena aldatu zuen, sobietar izenak, monumentuak eta sinboloak deuseztatzeko kanpainaren esparruan, eta haren ordezkari erregimen berriaren nartariba nazionalista abiarazi zuen.

## Bakhmuteko hiriaren erorketak adierazten du Errusia gerra irabazten ari dela

Egungo gerran, hiria “gotorleku menderaezin” izendatu zuen Kieveko gobernuak, eta han eraiki zuen bere hiru defentsa-lerro gotortuetako bat. Mendebaldeko eta Ukrainako prentsak duela hilabete batzuk Bakhmut/Artiomovsk “garrantzi estrategikoa” laudatzen zuen. Otsailean hiria konkistatzeko pulstu militarra hasi zen, eta errusiarrek hartu duten honetan, hedabide eta pertsona berberak hiria estrategikoki garrantzirik gabekoa dela diote. Bakhmutekin Seymour Hersh kazetariarekin gertatu zen gauza bera gertatu da: “kazetari bikaina” zen “Pulitzer saria” jaso

zuen, harik eta Biden presidentearen aginduz AEBek NordStream gasbideak nola lehertu zituzten xehetasunez argitu zuen arte. Une horretan, Hersh “kazetari polemikoa” bihurtu zen. Orain Errusiak Bakhmut konkistatzea ia ez da albiste izan hemen.

Ukrainak lau haizetara iragarritako “kontraerasoan” erabili behar zituen Bakhmuten finkatutako eliteko unitateak, eta hiriaren erorketak adierazten du Errusia gerra irabazten ari dela. Análisi fidagarrienen arabera, Ukraina Errusia baino zauritu eta hildako gehiago izaten ari da gerra honetan.

Errusiako analistek oso serio hartzen dute iragarritako –edo jadanik hasitako, ez dago garbi– Ukrainaren “kontraerasoan”. Badakite egoera okertu daitekeela, baina zenbakiak ez datoz bat ikusten dutenarekin. Iaz ez bezala, Errusiak orain nagusitasuna du soldadu eta artillerian, eta azken hori erabakigarria da Bigarren Mundu Gerraren baina Lehenaren antza handiagoa lukeen gerra batean, Moskuk bere lerroetan giza bizitzeko ekonomia argia praktikatzen duelako



Vladimir Putin, Errusiako lehendakaria.

ez balitz. Jakina, ez da hori Mendebaldeko gerra-propagandak eta haren sare mediatikoak azaltzen digutena, zeinak gerra erakusten digun errusiarren haragi-txikitzailea balitz moduan. Baina ez gaitzen tronpatu, eta are gutxiago ospa dezagun: ukrainarrak dira sarraski dramatiko horretan orain hildako gehien jartzen ari direnak. Eta soldadu gehiago izateko aukera errusiarrena baino askoz txikiagoa da.

Ukrainatik zortzi milioi herritar atera da atzerrira eta horietatik hiru milioi baino gehiago Errusiara –ezkutatu den beste datu argigarri bat–, beraz, herrialdeak gaur egun 25 edo 30 milioi biztanle izan behar ditu, Errusiaren 145 milioien aldean. Ukraina etsi-etsian ari da frontera joateko gogorik gabe diren herritarrak kalean biltzen. Kharkoven adin militarrean dauden gizonek iaz metrora jotzen zuten babes bila alarmak jotzen zuenean, gaur egun ez, sarekada batek 48 ordutan frontera bidaliko dituen beldur dira. Arrazoi beragatik asko ez dira etxetik ateratzen. Ehunka mila gazte errusiar herrialdetik atera dira, gerrara deitzea saihesteko, eta gauza bera gertatzen da Ukrainan, non abenduan muga zerbitzuak 12.000 atxiloturen berri eman zuen Errumaniarako muga legez kanpo zeharkatu nahian. Alemaniako erakunde antimilitaristen txostenen arabera, 175.000 desertore eta objektore baino gehiago daude Ukrainan. Eta hori gertatzen da, armadara ez joateko aukera pertsona egokiari milaka dolar emanda erosten den herrialde batean.

Iritzi nahiko orokortua da, bai Errusian bai Mendebaldean –orokortua, baina ia zabaldu gabea–, NATOk hornitzen dituen edo hornitzeke dauden tanke eta hegazkinen indar korrelazio hori gutxi aldatuko dutela. Higadura-gerra baten aurrean gaude, eta Errusiak, NATOren aurrean duen indar-desproporzio nabarmena gorabehera, ondo hornitua dirudi ikuspuntu industrialetik. Aire erasoaren aurkako defentsa-sistema ona du, eta misil-sistema ona ere bai. Dirudieenez, dagoeneko deuseztatu du Patriot amerikar bateria garestiren bat. Hala iradokitzen du, dagozkion propagandetatik harago, arma horiek ekoizten dituen enpresaren burtsako kotizazioa hil honetan erori **izanak**, haren eraginkortasunik ezari buruzko berrien erreakzio gisa, eta horrek ondorio lazarriak izango ditu hutsik gabeko arma gisa saldutako horien salmentan eta esportazioan.

Horrek ez du esan nahi gauzak ondo



Ukrainako infanteriako soldatuak.

ANTHONY JONES / UKRAINAKO ARMADA

---

Errusiak orain nagusitasuna du soldadu eta artillerian, eta azken hori erabakigarria da Bigarren Mundu Gerrarena baino Lehenaren antza handiagoa lukeen gerran

doazenik Errusiarentzat. Mendebaldeko arma berriak, misil ingelesak, tanke alemaniarrek eta, urrutixeago diren hegazkin amerikarrak gerraren goraldia elikatzen ari dira; eta ziurrenik, horiek guztiak Krimearen aurkako eraso kontzentratuagoak posible egingo dituzte. Bestalde, Wagner taldeko buruzagiak, Evgeni Katozhinek, errusiar armadaren aurka egindako etengabeko salaketek, bere jeneralak eta Defentsa ministroa bera irainduta eta muniziorik eman ez ziotela aurpegiratuta, oso ongi erakusten dituzte errusiarren artean dauden barne mailako zalapartak.

Arlo militarretik haratago, Errusiak galdu du inbasioaren aurretik Ukrainan

zegoen errusiarzaletasunaren kapital gehiena. Lehenago Galitzian eta herrialdeko mendebaldeko eskualdeetan bakarrik nagusi zen ukrainar nazionalismo etnikoak posizio asko aurreratu ditu lurralde osoan. Krimea eta Donbasetik kanpo, errusiera mintzo diren ukrainarren Errusiarekiko erresuminak gora egin du, atzera bueltarik gabe. Hori da ukrainar nazionalismoak gerra honetan lortu duen garaipen bakarra, eta errusiarrek esku-eskura zerbitzatu diete.

Mendebaldeko presio politiko eta mediatikoa oso arriskutsua da, “garaipen erabatekoarekin” amets egiten duten Ukrainako sektore eldarniotsuenak babesten ari direlako, eta horiek errusiarrek anexionatu duten guztia birkonkistatu nahi dute, Krimea barne. Errekonkista horrek ezinezkoa dirudi oraindik NATOko soldaduen esku-hartze militar zuzenik gabe, eta kasu horretan errusiar hipotesi nuklearrak aukera handiak hartuko lituzke.

Errusiar gizarteari dagokionez, oraindik ez dago gerran. Gatazka ez da nabaritzen Moskun eta San Petersburgon, oso kasu bakanetan agertzen da, nahiz eta oposizio marjinalaren aurkako errepresioa oso gogorra izan. Testuinguru horretan, Mendebaldearen inplikazio militar handiagoak eta Errusiako lurraldearen aurkako ekintza eta eraso ukrainarrek, hala nola eskuin muturreko errusiar boluntarioek egindako razzia



Ukrainako tanke bat erasoan.

UKRAINAKO DEFENTSA MINISTERIOA

militarrak Errusiako mugaldeko Belgorod eskualdean, gerrarako grina handirik ez duen gizarte baten babesa baino ez dute sustatuko.

Errusian gerra babesten duten pertsona zibilen aurkako atentatu ukrainarrak argi eta garbi aitortzen dituzte egileek. “Haiek terrorismoa deitzen dutena, guk askapena deitzen diogu”, esan du Kiril Budanov Ukrainako Defentsa Ministerioko atentatu horien arduradun den jeneral gazteak. “Hori ez zen hasi ni erotu nintzelako eta jendea hiltzen hasi nintzelako Moskun, baizik eta haiek gure herrialdea inbaditu zutelako 2014tik. Ez naiz honen inguruan luzatuko, baina errusiarrak hilko ditugu eta errusiarrak hiltzen jarraituko dugu munduko edozein lekutan, harik eta Ukrainak erabateko garaipena lortu arte”. Errusiarrak okupatutako eskualdeetan dozenaka “kolaborazionista” hil dira atentatuetan: Zajar Prilepin idazlea, maiatzaren 6an Nizhni Novgoroden, bere autoan bonbaz egindako atentatutik bizirik atera zena, baina bizkartzaina eta txoferra hil ziren bertan; Vladlen Tatarski blogari ultra, apirilaren 2an San Petersburgoko kafe-tegi batean bonbaz hil zuten hitzaldia eskaintzen ari zela, dozenaka lagun ere zauritu ziren; eta Daria Dugina kazetari gaztea, eskuineko filosofo baten alaba, iragan abuztuan autoan jarritako bonba baten ondorioz hil zuten. “Kasu horiek gertatu dira, eta gehiago izango dira, jen-

## Arlo militarretik haratago, Errusiak galdu du inbasioaren aurretik Ukrainan zegoen errusiarzaletasunaren kapital gehiena

de horrek merezitako zigorra jasoko du, eta zigor hori nik egingo dut”, aldarrikatu du Budanovek, 37 urteko Odesako errusiarrak.

Iaz, AEBetako jarrera zen ukrainarrak konbentzitzea Errusiaren aurkako erasoak ez egiteko, eta ukrainarrek, berriz, ez zuten onartzen beren ekintzen egiletza. Aurten, gauzak aldatu egin dira, Budanovek argi eta garbi esaten du, eta Boris Pistorius Alemaniako Defentsa ministroak ere guztiz normalizat jotzen ditu Ukrainako operazioak Errusian.

“Badakigu atentatu terrorista horiei buruzko erabakiak ez direla Kieven hartzen, Washingtonen baizik”, adierazi du Kremlinako bozeramaile Dmitri Peskovek.

Gertakari horiek, baita trenbideen aurka egindako sabotajeak eta Errusian egindako beste ekintza batzuk ere, Ukrainaren eta Mendebaldearen aurka itzuliko dira, Errusiako barne-adostasun soziala estutzen joango direlako, gaur egun oraindik gogo handirik pizten ez duen gerra baterantz, eta, agian, erabateko mobilizatorantz, elkarrengana areago bilduta, NATOk zuzenean esku hartzen badu. Aldi berean, atentatu horiek, Errusiak okupatzen dituen ukrainar eskualdeetan aurrerantzean izango duenaren iragarpena dira, gatazka izoztu eta “garaipen” militarra gertatuz gero.

Nazioarteari dagokionez, G7ak Hiroshiman egindako azken goi-bilerak eskalada azpimarratu du: kapitulazioa eta baldintzarik gabekoa, eta Errusiaren erabateko erretiratze militarra, Ukrainari “laguntzarik sendoena ematea beharrezkoa den denbora eperako harik eta bidezko bakera iritsi arte” eta gerra-hegazkin modernoek entregari argi berdea ematea, beste aldetik Txinaren aurkako kurrika gogortzen den bitartean. Erantzuna Moskuren eta Pekinen arteko lan-kidetza industrial eta militar handiagoa izan da, aste honetan, Pekinen, Mikhail Mishutin Errusiako lehen ministroaren bisitarekin, bere kabineteko ministroen herenak lagunduta, eta Chen Wenqing Txinako alderdiko Politburoko segurtasun arduradunak (hau da, segurtasuneko lehen buruak, ministro bat baino askoz gehiago dena) Moskura egindako bisitarekin.

Txinatarrak oso jakitun dira Washingtonek “Ukrainako krisia Asia Pazifikokoan errepikatu” nahi duela, dio *Global Times* egunkari txinatarrak. Dioenez, helburua da Txinaren aurkako prokurazio gerra eragitea eta Asiako NATO bat sortzea. AEBek sustatzen duten gerraren hedapenaren aurka prestatzen ari dira txinatarrak argi eta garbi, eta errusiarreri eskatu diete aire-defentsa sistema modernoak transferitzeko, S-400 eta S-500 modelo berriak eta hobetuak barne. Jakina, Errusiak trukean Txinaren laguntza industrial/militarra jasoko du; NATO bien aurka gero eta inplikatuago egon militarki, orduan eta handiagoa izango da laguntza. ●

Artikulu hau Ctxt agerkaritik jaso dugu eta honako helbidean topa daiteke:





# Intentsitatea estrategia feminista gisa erabili beharko genuke

**Ana Requena**

elDiario.es-eko genero erredaktore burua

2012an elDiario.es egunkari digitalaren sortzaileetako bat izan zen Ana Requena (Madril, Espainia, 1984). 2014an, gerora zenbait sari jaso dituen *Micromachismos* bloga sortu zuen eta 2018az geroztik hedabide horretako genero erredaktore burua da. Madrilgo Malasaña auzoaren erdigunean hitzartu gaitu, argitaratu berri duen *Intensas* (Roca, 2023) liburuaz eta kazetaritza feministaz solastatzeko.

 SAIOA BALEZTENA  DAVID F. SABADELL

## Goazen abiapuntura. Noiz eta nola murgildu zinen zu feminismoan?

Ttikia nintzenetik interesa sentitu nuen feminismoarekin. *Naif*-a irudituko zaio bati baino gehiagori, baina hala izan da. Oroitzen naiz, adibidez, *Barbie*-ak errefusatzeko nituela, amaxik bat oparitu zidan eta nik *Mierda* izena jarri nion. Edo, 7-8 urte nituenean, nire anaia jaino zenean, drogerian saltzaileak mutila edo neska zen galdetu zigun behin, fardel arrosa edo urdinak emateko; nik neska zela erantzun nion, amorrua ematen zidalako neska edo mutila izateagatik kolore bat inposatzea. Gauzak bertze modu batera egin behar ziren uste osoa nuen. Horretaz aparte, nire kontzientzia feministan eragina izan zuen nire amak lan egin izana tratu txarrak jasan zituzten emakumeentzat Albaceten ireki zuten lehenengo harrera zentroan, 1990eko

hamarkadan. Ordura arte ezezaguna zen errealitate hori gertutik ezagutu nuen 6 urte nituenean.

## Eta kazetaritza nola sartu zen zure bizitzan?

Feminismoarekin bezala; bi pultsioak irmoki sentitu izan ditut betidanik. Irakurtzea eta idaztea gustuko nituen, nerabearoan eguneroko bat idazten hasi nintzen, egunkaria irakurtzen nuen eta munduan gertatzen zenaren berri izan nahi nuen. Kazetaritza nire bokazioa zela argi izan dut betidanik, mundua aldatzeko lanabes gisa.

## 20 urte zenituenean zapaldu zenuen lehendabiziko erredakzioa. 18 urte pasa dira, oraindik ere uste duzu kazetaritzak mundua aldatzeko balio duela?

Batzuetan inozoa naizela pentsatzen dut, baina idealismo hori mantentzen dut oraindik, bai. Urte hauetan guztietan gauza itsusi anitz ikusi ditut, baina ezagutu dut mundua eraldatzeko kazetari askoren konpromiso irmoa ere. Ezagutu ditut uste osoa dutenak kazetaritza ezinbertzekoa dela, pertsonak, pentsamoldeak eta gizarte imaginarioa eraldatzeko. Eta, noski, kazetaritzak mundua aldatu dezakeela baieztatzeak ez du erran nahi beti lortzen duenik, baina argi dut profesional anitzek abiapuntu horretatik egiten dutela lan. Nik, behintzat, hortik egiten dut lan.

**Intensas** liburua argitaratu berri duzu Roca argitaletxearen eskutik. Zer bilatzen zenuen liburu horrekin? Intentsitatea bizitza motore gisa aldarrikatu nahi izan dut. Sarri negatiboki

sentiaratzen gaituzte *intentsa*, baina intentsitateak balio badu gurutzatu nahi ez ditugun mugak jartzeko, orduan, agian, estrategia feminista gisa erabili behar-ko genuke, hain zuzen ere, inposatzen dizkiguten muga horiek hausteko. Azken finean, ustezko intentsitate horrek ahalbidetzen digu nahi dugunarekin eta nahi ez dugunarekin kontaktuan egotea, amorrarekin, haserrearekin, desioarekin... eta horrekin guztiarekin kontaktuan egoteak gauza onak bakarrik dakartza. Gertatzen dena da gure gizartean asaldatzailea izan daitekeela; norberarentzat, mandatutik eta estereotipotik kanpo dauden tokietara eramaten gaituelako intentsitateak, eta baita ingurukoentzat ere, noski, ez baitaude ohituta gu muge-tatik kanpo ikustera.

### **Gogoratzen duzu noiz sentiarazi zintuzten *intentsa* lehen aldiz?**

Tira, ez dakit. Oroitzen dudana da feminismoa aldarrikatzeagatik kontrako erreakzioak jasotzen nituela nerabeza-roan. Ez nire familian, baizik eta eskolan edo institutuan. Feminista nintzela erra-ten nuenean, adibidez, lagun anitzek, eta baita irakasleek ere, desegokia nintzela sentiarazten zidaten. Egia erran, borroka horretan bakarrik sentitu nintzen. Horregatik, orain feminismoa kritikatzan denean, merkantilizatzen ari delako, nik ez dut ulertzen: noski, argi dut garrantzitsua dela mugimenduaren oinarria mantentzea, sistema beti saiatzan delako gorakadan dagoen mugimendu hau subsumitzen. Baina ni ikaragarri pozten naiz feminismoa aldarrikatzen duten neskek ikusten ditudanean kaletik. Horrek erran nahi baitu dagoeneko ez dituztela baztertzen eta babestuak sentitzen direla aldarrikapen horretan.

*Intentsa* sentiarazi ninduten aurrera-go, seguruenik, lan eremuan; feminista izateagatik jendeak sarri zalantzan jarri baititu ez bakarrik nire ideiak, baita ka-zetari izanik neure burua feminista gisa aldarrikatzea ere. Eta, noski, *intentsa* sentiarazi naute gizonekin izan ditudan harremanetan, batez ere.

**Lana aipatu duzula, elDiario.es-eko kazetari eta genero erredaktore burua zaren heinean, zure lana da, bertzeak bertze, patriarkatuak gustukoak ez dituen gauzak azaleratzea. Nola eragiten du gure lanak intentsitate horretan?**

Korrontearen kontra goazen heinean, nabarmenagoa da gure intentsitatea. Azken



“”

*Kazetaritza  
feministaren lorpena  
izan da agenda  
mediatikoan isilarazita  
zeuden hamaika gai  
azaleratzea*

finean, genero ikuspegiarekin kazetari-tza egiten dugunean, kazetaritza egiteko hainbat dinamika zalantzan jartzen dugu. Inertzien kontra lan egiten dugu, hamarkada aniztatan ezarri diren dinamiken kontra. Eta lan hori egitea zaila da aniztetzan.

### **Zergatik da zaila?**

Hasteko, hamarkada gehiegitan inposatu den kazetaritza ereduaren kontra joaten garenean ohikoa delako gure lana zalantzan jartzea, eta hori nekagarria da. Izan ere, gure lana zalantzan jartzen duten bitartean, barneko eta kanpoko jazarpe-na sufritzen baititugu. Eta garrantzitsua

iruditzen zait azpimarratzea feminismoarekin, berdintasunarekin edo generoarekin zerikusia duten gaietan lanean ari garen kazetariok irainak eta eraso pertsonalak jasotzen ditugula behin eta berriro... Horregatik, liburuan intentsitate hori aldarrikatzen dut, aurrera jarraitzea ahalbidetzen digulako.

**Lehendabiziko kapituluan *intentsa* sentiarazi zaituzten hainbat egoera aipatzen dituzu. Adibidez, lan bilera batean, sutuki solastatzen zarenean, kazetari gizon batek "horrela arrazoia galtzen duzula" erraten dizunean.**

Arazoa da legitimizatua dagoela gizon bat sutuki solastea. Nolabait hezi gaituzte gisa horretako gizonak ikustera, eta guk normalizatu dugu, baita ere, lidergoa irmotasunez gauzatzen dutenean. Aldiz, guri aurpegiatzen digute irmoki solasten garenean gure formek arrazoia kentzen omen digutela. Funtsen, estrategia erabat erraza da, komentario horiekin guri arrazoia kentzea bilatzen dutelako, argudiatu beharrik gabe. Gure formak baliorik gabe uzten dituzte, gu zuzenean baliogabetzeko. Eta hori gertatzen da alor profesionalean, politikoa zein pertsonalean.

**Sarritan pasa zaizu hori?**

Bai, batzuetan sentitu dut nire proposamenak gutxietsi direla. Eta uste dut horrek zerikusia duela honekin: kazetari feministok ikusten gaituztela irizpide profesionalak galtzen dituzten aktibista moduan. Hainbat kazetarik uste du gure lanean ez dugula kalitatezko eduki profesional egokia ematen.

**Baina bateraezina da kazetari feminista eta zorrotza izatea?**

Inola ere ez. Kazetaritza feminista egiteak esplizitu egiten du abiapuntu bat; itxuraz neutrala den baina errealitatean ez den balio sistema batean bizi garela. Horregatik, nire kazetari lanaren erronka da neutralitate faltsu hori aintzat hartzea. Salatu ahal izatea balio sistemak desberdintasun anitz eragiten duela, diskriminazioa eta indarkeria, bertzeak bertze, eta horren kontra joan behar dugula. Eta, noski, hori bateragarria da kazetari zorrotza izan eta egiazkotasun zein sinesgarritasun irizpideak aplikatzearekin.

**Arazoa ez ote da gure zorrotzetasuna deserosoa dela gizartearentzat?**

Noski, gutaz espero dutena da kazetari-

“”

*Ohikoa da kazetari  
feministon lana  
zalantzan jartzea,  
neka garria da*

tza inertiarekin jarraitzea eta inposatu zaigun diskreziio mandatuari fidel izatea, joaten garen tokira joaten garela, gure eginkizuna baita inguruaren ongizatea bermatzea. Baina, bat-batean, emakume batek inertzia horri kontra egin eta gauzak modu desberdinean egin daitezkeela aldarrikatzen duenean, deserosoa da. Horregatik, gure lanak ezinegona, haustura eta nahasmena eragiten du.

**Zailtasunak zailtasun, kazetaritza feministaren konpromisoak gauza positibo anitz ere ekarri ditu. elDiario.es-en inflexio puntua izan diren ikerketa anitz kaleratu duzue. Nola bizi duzu?**

Gogobetetzen nau, eta zalantzarik gabe, hori da egiten dudana egiten jarraitzeko arrazoi nagusia. Agenda mediatikoa eta gizartearen orain arte isilarazita zeuden hamaika gai azaleratu ditugu eta hori

kazetaritza feministaren lorpena da, dudarik gabe.

**Nola ikusten duzu kazetaritza feministaren osasuna gaur egun?**

Eragin orokortua badago, indarkeria obstetrikoa edo eguneroko matxismoa, adibidez, ideologia desberdineko hedabideetan presente daude. Gero, hedabide bakoitzak gaiak lantzen ditu bere posiziotik eta energia eta baliabideak modu batean edo bertzean erabilia. Horren arabera, ikus daiteke hedabide batek genero ikuspegiarekin kazetaritza egiteko konpromisoa duen edo ez.

Badira hainbat komunikabide hobeki egiteko apustua egin dutenak eta esfortzu hori agerian dago; bertze batzuk agian ez dute hainbertze egin, baina nolabait agenda mediatikoak bizi izan duen eraldaketaren eragina izan dute. Eta, azkenik, badira bertze hainbat komunikabide edo webgune, nolabait izendatzeagatik, kontrari jokatzeko dutenak; titular bat edo bertze jartzeagatik haserretuko direnen klik sumindua bilatzen dutenak, bertzerik gabe.

**Hamarkada anitzetan isilarazita egon diren ikerketak argitaratu dituzue berriki, gehiegizko zesarreak edo azafaten kontua datozkit burura. Interesak al daude horrelako gaiak ezkutatzeko?**





Aipatzen dituzunak bezala, badira azaleratzeko zailak izaten diren ikerketak, bai, baina gehien frustratzen dutenak dira argitaratzen ez ditugun ikerketak. Hori enkistatuta gelditzen da eta garrantzitsua iruditzen zait bistaratzea, lan anitzen atzetik borroka ikaragarria da-goelako. Eta arriskuak, salaketa mehatxuak batetik edo hainbat iturrik solasteko beldurra izatea...

**Politikaz eta feminismoaz galdetu nahiko nizuke. Zer deritzozu Espainiako berdintasun Ministerioak azken legealdian egin duen lanari?**

Uste dut azken legealdietan aurrerapauso garrantzitsuak eman direla berdintasunari dagokionez. Uste dut azken gobernu progresistetan Berdintasun Ministerioa ezinbertzekoa izan dela Espainiako Estatuko zaintza sisteman politika publikoak, lotsaz bada ere, zabaltzeko. Sexu Askatasunaren Legeak paradigma aldaketa garrantzitsua eragin du, kontu penalaz haratago, hala nola hainbertze solastu ez diren krisi zentroei dagokionez edo froga biologikoen zainketarekin, adibidez. Baina, nire ustez tristeena da Berdintasun Ministerioaren jarraipena etorriko den gobernuaren arabera izatea.

Ministerioak trebetasunak eta akatsak izan ditu, noski. Baina, badirudi hutsagite ttikiena ere ezin zaiola onartu. Ni ez nago ados, inolaz ere, egin duten guztiarekin, ezta euren politika guztiak defendatzeko erabili dituzten argudiaketa guztiarekin ere. Badira hainbat gai defendatzen ez ditudanak, bertze anitz bai. Baina, guztiaren gainera, ikuspuntu feminista duen Berdintasun Ministerio bat egotea aldarrikatzen dut.

**Mugimendu feministaren hainbat sektoretatik gogor kritikatu dute**



“”

*Irene Montero Sumar  
koaliziotik kanpo  
gelditu izanak  
ez du zerikusirik  
feminismoarekin, baizik  
eta gatazka politiko  
eta partidista batekin*

**Irene Monteroren ekarpena.**

Berdintasun Ministerioaren kontrako erasoaren zati handi bat abiatu da feminismoa modu desberdinean ulertzen duten kideen eskutik. Euren ikusmoldea feminismoa ulertzeko modu bakarra dela uste dute. Eta pentsatzen badu-

zu botere instituzional feminista soilik egon daitekeela zure ikusmolde bera dutenen eskuetan... bertze edozein bide zentzugabekeria gisa ulertzen dute. Tamalgarria da, polarizazio horrek lantzen ari ziren politiken inguruko elkarrizketa edo eztabaidarako aukera ebatsi duela. Giroa hain lokaztuta zegoen, bazirudiela toki batean zinela edo bertzean zinela, eta nik ñabarduretan sinisten dut. Azken urteetako tristurarik handiena izan da, nire ustez, espazio erreal guti egon dela elkarrizketa produktiborako.

**Zer deritzozu Irene Monteroren betoaz?**

Irene Montero Sumar koaliziotik kanpo gelditu izanak ez du zerikusirik feminismoarekin, baizik eta gatazka politiko eta partidista batekin. Eta larria iruditzen zait orain ondorioztatzea Monterok akatsak egin izana dela eskuin muturraren eta antifeminismoaren gorakadaren arrazoiak. Testuinguru askozaz konplexuagoa da. ●

**NOLA EGIN ATE GUZTIAK  
ASKATZEKO?**

**Zumaian LGTBI+ bizitzak erdigunera!**



BIDEA: Armaizaren inguruko bizipenak, zumezaren ahotik.

Zumaiako Udala



ZUMAIA  
BIZITZEKO  
DA

## AITOR MANTEROLA KIROL KAZETARIA

# “Kirolari mespretxuz begiratzen dio kulturako sektore batek, eta ez zait jarrera praktikoa iruditzen”



Kirol kazetaritzaren zoko-mokoak ondo ezagunak ditu Aitor Manterolak (Zumaia, 1975). Urteak egin ditu *Berria* egunkarian, batik bat arraunaz eta futbolaz idazten. Iaz “estropada bukatzea” erabaki zuen, atzean “ubera polita” utzita, eta politikaren zelaian jokatzeko hasi da orain; zinegotzi kargua hartu du Zumaiako Udalean. Kirolarekiko pasioa estilo jostariarekin papereratu du kazetari moduan, baina baita seriotasunez ere, jolas hutsa baino gehiago baita kirola: “Indar ikaragarria du gizartean, eta ezin da gutxietsi”. Zentzu horretan, uste du euskarazko hedabideek ausardia handiagoz jorratu beharko luketela. “Kirol kazetari bikainak ditugu, baina ez diegu zukua ateratzen”.

 EÑAUT AGIRREBENGOA APAOLAZA

**Politika eta kirola ez omen dira nahastu behar. Bada, zu zinegotzi izango zara datozen lau urteetan Zumaiako Udalean, eta kirola izango da zure arduretako bat.** Politika baino gehiago, herrigintza da nire ustez. Bizi guztia daramat nik

herrigintzan. Kirol munduan, arraun elkarteko zuzendaritzako kide izan nintzen zortzi urtez, eta futbol entrenatzaile gisa ere jardun dut. Bestalde, euskara eta dantza taldean ere ibilia naiz. Udaleko lana ere zaku horretan sartuko nuke.

**Orain “kanpoko balizetan” zabilzala diozu. Urte askoan aritu zara, baina, tostarlean, kirol kazetaritzaren ur nahasietan arraun egiten.**

Bai, eta zeinen urte ederrak izan diren! 2009 inguruan hasi nintzen, Igor Susaetarekin. Hark arraunaz idazten zuen *Berria*n, eta hari lagunduz hasi nuen bidea. Egundoko esperientzia izan da arraunaren mundua kazetari gisa bizitzea, eta oso harreman pertsonal onak sortu ditut urte hauetan guztietan. Hori atzean uzteak pena handia eragiten dit, nahiz eta harremanek hor segituko duten.

**Futbolzale amorratua zara, eta pasio hori paperan islatzeko aukera izan duzu. Ordea, arrasto handiagoa utzi dizu arraunak?**

Kazetari bezala bai, gertuko harremanak egiteko aukera handiagoa eman didalako. Gainera, gehiago idatzi dut arraunaz, eta horren ondorioz, jende gehiagorengana iristeko modua izan dut. Arrauneko jendea beti prest agertu zait edozertan laguntzeko. Eta kazetari bezala, garrantzi handia eman diet harremanei.



**Gertutasun hori, normalean, bestelako interesengatik bilatzen du kirol kazetariak?**

Ez dakit. Nire kasua ez da izan, behintzat. Kazetaritza nik ez dut horrela ikusten. Gauzak bihotzez egiten saiatu naiz. Eta garbi izan dut beti kazetariok zubi bat garela, albistea edo protagonista, eta irakurlea edo gizartea lotzen dituen. Protagonistak ez gara gu. Albiste bat aurrena eman, ez dakit zer... Ni ez naiz horrekin itsutu. Fitxaketen harira-eta, primizia batzuk eman nituen, baina beti errespetuz, eta kirolariei galdetuta.

**Kirola entretenimendu hutsa da askorentzat. Emaitzen jiran antolatuta dagoen antzerki handi bat.** Batzuetan hil ala biziko kontua dela ematen du. Eta emaitzak balio du ba-

karrik. Galdu ala irabazi, ez dago beste aukerarik. Galtzea porrota da, eta irabazita, zerura zoaz. Oso eredu txarra da heziketa aldetik. Prozesuak ez dira aintzat hartzen. Irabaztea ez da helburu izan behar, ondorio baizik. Bide bat dago horra iristeko. Lanketa pedagogiko handia egin behar da. Baina alferrik da. Krispazio giro etengabea gabiltza. Pizten diren suei hauspoa ematen diegu. Hor ardura handia dugu kazetariok.

**Bat zatoz kirola anestesia kolektibotzat jotzen dutenekin?**

Ezin da uka jendea entretenituta izateko erabiltzen dutela eliteek kirola. Gizartearen hausnarketak kirolera bideratuta, jendea ez da haserretzen bizi ditugun bidegabekeriaren aurrean. Dena den, errua beti manipulatzailari botatzen

diogu, baina norbanakoaren ardura da manipulatu ez izatea. Goazen hausnartzera: zertan ari naiz ni kirol emaitza bati hainbesteko garrantzia ematen? Beti ere, errespetatuta talde batekiko izan daitekeen sentimendua eta atxikimendua.

**Diru grinak irentsi egin du kirola, eta hortik ere badator askoren arbuioa.**

Garbi dago kirol handienetan gehiegizko dirutza mugitzen dela. Ni ez nago horren alde. Baina ez dugu ezer aldatuko egoerari bizkarra emanda. Aldatzekotan, barrutik eraginda aldatuko dugu.

**Zirku horren parte sentitzeak barne gatatzarrik eragin dizu kirol kazetari moduan?**

Batzuetan bai. "Mundua dagoen bezala,

zertan ari naiz ni hemen?” pasa izan zait burutik. Baina buelta eman izan diot. Jabetu naiz kirola gutxietsi edo mespretxatzeak ez duela zentzurik.

**Kazetari urterik gehienak prentsa idatzian igaro dituzu. Zerk egiten du berezi idazketa adierazpide moduan?** Hizkuntzarekin jolas egin dezakezu, eta esperimenduak egin. Orri edo pantaila txuri baten aurrean jartzen zara, eta nahi duzun bezala duzu betetzea orri hori. Barruan dudan hori ateratzeko modurik onena da. Lehen, nire buruarekin gustura ez negoziarenean edo arazo bat nuenean, idatziz askatzen nituen korapiloak. Esanahi magikoa du niretzat.

### **Kiroletan beste sail batzuetan baino askatasun handiagoa du kazetariak hizkuntzarekin jostatzeko?**

Kirol saila agian ez da horren zurruna, eta bai, aukera hori ematen dizu. Baina beti ere jorratu behar duzun gaia menperatzen baduzu. Beti kontatzen dut niri arraunarekin gertatu zitzaidana. Umetak ikusi dut nik arrauna, baina ulertu... *Berria* arraunaz idazten hasi nintzeanean, oso oinarritzako datuak ematen nituen: ziabogetan ontzien artean zeuden aldeak, eta halakoak. Ikasteko gogo handia nuen, ordea, eta informazio berria xurgatuz joan nintzen. Hori horrela, bila-kaera handia izan zuten nire artikuluek.

### **Futbolaz ere jakintzatik abiatuta idatzi duzu, entrenatzailea baitzara aspalditik.**

Ulermenak beste konfiantza eta askatasun bat ematen dizu ordenagailuaren aurrean jartzen zarenean. Eta uste dut hor ere kazetariak ardura duela. Futbola aitzakia da futbolaz ez hitz egiteko. Hala esan zidan behin Gaizka Garitanok, eta arrazoi zuen. Jokoaz ez da hitz egiten, edo oso gutxi. Eta nire ustez, kazetariok azaldu egin behar dugu jokoak. Baina horretarako, ulertu egin behar da. Nik entrenatzaile titulu guztiak eskuratu nituen, eta kazetari bezala, ikasitakoa irakurleei helarazten saiatu naiz.

### **Hortaz, joera dago kirola arinkeriaz jorrazteko. Gai hutsala delako?**

Kirolak indar ikaragarria du gizartean. Logikoa da: zenbat jende mugitzen du, herri txikietatik hasita? Ezin da gutxietsi. Orokortzera noa agian, baina hemen, Euskal Herrian, kulturako sektore baten mespretxuz begiratzen dio kirolari. Ez zait jarrera praktikoa iruditzen. Ezer

## **“Krispazio giro etengabe batean gabilta kirolean. Pizten diren suei hauspoa ematen diegu. Hor ardura handia dugu kazetariok”**



baztertu ordez, goazen herrigintzan gauzak uztartzera. Herri nahiz nazio mailan, kirola sekulako tresna da; besteak beste, berdintasuna, inklusioa eta gizarte kohesioa lantzeko. Talde kirola, niretzat, bizitzaren metafora bat da, eta elkarlana eta errespetua bezalako baloreak barneratzeko balio du. Gizartearen joera indibidualistari kontra egiteko modua da. Eta euskararen erabilera eskolatik kanpo bermatzeko aukera ere ematen du.

### **Nazio eraikuntzarako ere tresna baliagarria da?**

Noski. Tamalez, gutxi erabiltzen da zentzu horretan. Futboleko klub handiak, adibidez, ez dira ausartzen. Bazkiderik ez omen dute bazter utzi nahi. Baina aldi berean, gaztelarari toki gehiago ematen diote euskarari baino. Hor ez dituzte gogoan bazkide euskaldunak. Politikaren kasuan, tentu handiz jokaten dute. Inguruan hedabide espainolak dituzte, Espainiako Ligan jokaten dute... Esku frenoarekin dabilta. Horrez gain, uste dut klubek gehiago probestu beharko luketela kirolarien eragina gizarteari mezu hezitzaileak helarazteko.

### **Asko aldatu da kirol kazetaritza zu hasi zinetik?**

Alde batetik, orain gehiago bilatzen da morboa lehen baino. *Berria* ez da horrelakoa, eta hori gauza handia da. Ni inork ez nau behartu behatza behar ez zen lekuan sartzera irakurleak lortzeko.

Baina estilo hori badago. Okerrera egin dugu zentzu horretan, nahiz eta ari diren sortzen kirol komunikabide batzuk kazetaritza errespetagarria egiten dutenak. Baldintzak, zoritxarrez, prekarioak dira euskarazko hedabide pribatuetan. Nahi eta ezin bat da. Ez dago baliabide nahikorik. Irakurleak falta dira.

### **Zergatik ez dira kirolari buruzko edukiak euskaraz irakurtzen?**

Euskararen kontrako egoera orokorrean eragina dute. Bestalde, agian ausardia falta dago produktuetan. Goazen kirolaren alde apustu egitera. *Harmaila* aldizkariarekin saiakera egin genuen Eñaut Barandiaran, Iñaki Berastegi eta hirurok. Ikusten genuen kirolean landu gabe zegoela arnasa luzeko kazetaritza. Zenbaki batzuk argitaratu genituen; ehun orri zenbakiro. ARGIA Saria ere irabazi genuen. Ordea, pandemia etorri zen. Harpidetzak galtzen hasi ginen, eta jada ez genituen betetzen Jaurlaritzaren diru-laguntzak jasotzeko baldintzak. Aurrera jarraituz gero, ez genuen bate-re garbi nora iritsiko ginen. Lan nekeza zen, eta sosik kobratu gabe aritu ginen. Azkenean amore eman genuen. Hutsunea hor dago, baina. Kirolak hainbeste zale izanik, merezi du jende multzo horri euskarazko produktu bat eskaintzea.

### **Zer diagnosi egingo zenuke euskarazko kirol kazetaritzaz?**

Profesional bikainak dauzkagu, baina ez diegu zukua ateratzen. Gizarte bezala, ez dugu baloratzen nolako kirol kazetariak ditugun. Eta kritika eraikitzaile bezala esango dut: hedabideen proiektuetan ere ez dugu asmatzen potentzial horri etekina ateratzen.

### **Distantziak begiratuta, zeintzuk dira ofizioaren alderik txarrenak?**

Alde batetik, kirol handietan kazetarien eta kirolarien artean harremana egon dadin taldeek jartzen dituzten zailtasunak aipatuko nituzke. Ez gaituzte zubi bezala ikusten. Eta, gero, estresa ere hor dago. Eguneroko kazetaritzak berezkoa du presaka ibiltze hori. Kirol kazetaritzaren kasuan, gauetako kronikekin larri ibiltzen zara zierrea goiz baduzu. Horrek eragin egiten dio lanaren kalitateari. Bizkor lan egite hori ondo dago, baina buelta eman behar zaio gero. Ez badiozu neurria hartzen, arriskutsua izan daiteke. Halere, lanbide zoragarria da. Hil arte sentituko naiz kirol kazetari, eta ez dut itzultzea baztertzen. ●

# MILITARREN SENDABELARRA GURETZAT ERE TXARRA EZ



**GARBIÑE LARREA**  
@GAR2LARREA

DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

**S**antio-belarraz (*Hypericum perforatum*) ari naiz, akaso irakurleak ausiki-belar, epai-belar, hostoargal, likurusna edo milazulo izenez ere ezagutuko duenaz, baina militarren sendabelarra esango banu zer, lotura egitea pixka bat gehiago kostako da, ezta?

Sendabelar magikotzat jo izan da, igarro berri dugun San Juan egunaren inguruko tradizio askotan aurkituko dugu. Ez da edozein, Erdi Aroan deabrua uxatzeko ere erabiltzen zelako, atarian babesgarri moduan ipinita. Euskal Herriko hainbat tokitan San Juan eguneko sendabelar eta lore sortan ipintzen jarraitzen dugu, badaezpada ere.

I. mendean armada erromatarreko mediku zen Dioskoridesek idatzi zuen berari buruz eta egin zituen azterketek formula asko ezarri zituztela ikusten dugu, ordutik oso erabilia izanik. Mina arintzea du helburu, gorputzekoa bezain ondo arimakoa, hala, antidepressibo erabilia da. Gaur egun ere, orduan bezalaxe, gerrek sortzen dituzten min anitzak tratatzeko ona da. Norberak

jakingo du bere batailen berri, nahiz ez izan soldadu...

Flabonoideak, polifenolak, taninoak, karotenoideak, fitosterolak, pektina, olio esentzialak, hiperizina, hiperosidoa, hiperforina, olio esentziala eta pigmentu gorria ditu loreak eta osagai hauetako batzuk bakarrik hostoak. Horregatik, ahal dela, lorea erabiltzen saiatu behar dugu. Lore irekia, egun eguzkitsuan bildua, adituek diotenez. Osagai hauek sendatzaileak eta depresio arinaren kontrakoak dira; antsietatea, urduritasuna eta hauek eragindako insomnioa tratatzeko ere balio dute.

Kanpo erabileran oliba oliotan beratu eta eguzkitan berrogeialdi batean edukita sekulako oleatoa egiten da, urre gorriaren parekoa. Bera hutsik azalean igurtzita giharretako gogortasuna eta hantura tratatuko ditugu. Ukendua egin nahi duenak egin dezake baina oleatoa hutsik erabiltzea ondo dago zauriak, ultzerak, erredurak eta urratuak tratatzeko, antibakteriano ona baita. Zauri irekia eta kolpea batera ditugunerako egokia



**egonarria**  
Lurrari entzuten dion saioa

---

Gai nagusia: **Arrantza**  
Esperientzia: **Itsasuko gereziak**

Leo Belaustegi arrantzaleak azalduko digu lanbide honek eta itsasoak izan duten bilakaera. Esperientzien atalean, Itsasuko gereziak ezagutuko ditugu eta aurtun jasan duten kaltea, kazkabarrak uzta galdu baitu.

[argia.eus](http://argia.eus)   [bizibaratzea.eus](http://bizibaratzea.eus)

da, kirurgia osteko zauriak zaintzeko ere bai. Zirkulazioa babesten duelako neguan erabiltzea gomendatzen dugu, ospelel aurrea hartzeko.

Eragin antidepressiboa duten sendabelar zein botiken albo ondorioak izan ditzake: urdaileko arazoak, urduritasuna, buruko mina, goragalea, gosea, ahoa lehortzea eta azkura. Halakoetan ez erabiltzea gomendatzen da. Botika askorekin ez da bateragarria, buruko gaitzetarako botikak hartzen direnean psikiatrak erabaki behar du egokitasuna. Analgesikoak, anestesikoak, antisorgailuak, antirretobiralak, digoxina, tiroxina, botika antiaritmikoak eta onkologikoak hartzen direnean ere ezin da erabili. Kasu hauetan denetan ukendua segurua da.

Infusio zein tinturan hartu edo ukendu zein oleatoa larruazalean emanez gero ez da eguzkirik hartu behar, larruazalean orbanak aterako zaizkigulako. Hala, neguan bakarrik erabiltzea gomendatzen da. Haurdunaldian eta edoskitzarroan ezin da erabili. ●

# PETUNIAREN IKUSKIZUNA



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**P**etunia loreak ireki eta ireki ari da eta ni berari begira leihotik barrena. Batera, Sergei Prokiefieven musika entzuten ari naiz, bai, Ukrainako Donetskoko Sontsiwkan 1891n jaiotako musikagilearen *Romeo eta Julieta* opera, William Shakespearrek idatzitako izen bereko tragedian oinarritutakoa. Entzuten eta ikusten, Kenneth MacMillan koreografo ospetsuak sortu eta 1965ean lehen aldiz jokatatu zen opera horren balleta ikusten; lehen emanaldi hartan hasi zen oraindik amaitu ez zaion arrakasta, 40 minutuz txalotu zuten ikusentzuleek, eta 43 aldiz oihala jaitsi-altxa arazi zuten. Ikuskizuna ederra da, errusiar musika, frantses itxurako koreografia, ingeles batek idatzitako italiarrei buruzko historia eta Portugalen egindako jantziak, adibide ezin hobea da Europako zibilizazioa ekialdetik mendebaldera ilustratzeko. Dantza simple samarra da, baina jantzien, paisaiaren eta aktoreen bidez goiko mailara igotzen dena. Benetan erakusten du zein garrantzitsuak diren elementu horiek ballet ikuskizun gogoangarri bat sortzeko. Oso egokia nire petuniaren (*Petunia x hybrida* edo *Petunia atkinsiana*) loraldia jantzeko.

Petuniaren historia ere antzekoa da, urtetako gertakarien metaketaren ondorio dira egun ezagutzen ditugun petunia ikusgarriak. Jatorri hegoamerikarra du, hibrido bat da eta ama-aitak Brasilgo *Petunia integrifolia* morea eta Argentinako *Petunia axillaris* zuria ditu, baina Europara ekarri eta bertan nahastuta sortu ziren lehen hibridoak. Barietate ugari dago gaur egun, hibrido horietatik eratorria; asko eta



asko bioteknologia berriak erabiliz sortuak: transgenia, zink-hatz nukleasak eta ARN eragozlearen bidezko geneisiltze transkripzionala. Azken teknika honen istorioa petuniarekin hasten da: AEBetako Arizonako Unibertsitateko ikertzaile botaniko talde batek, Rich Jorgensen doktorea buru, petunia batzuen kolorea bizitu nahi zuen, pigmentazioa sortzen duen gene berri bat erantsiz. Emaizta ez zen pozgarria izan, alderantziz, loreak zuri bihurtu ziren. Konturatu ziren gene berriak eta petunia haren geneak elkar zapaldu zutelako. Batak bestea bertan behera utzi zuen eta alderantziz. Esperimentu horrek mekanismo zelular berri bat ezagutzeko balio izan zuen: geneen isiltasuna. Egun gure osasungintzan teknika iraultzailea bihurtu da; 2006an Fisiologia

eta Medikuntza Nobel Saria jaso zuten horri ekin ziotenek.

Tabako-belarraren (*Nicotiana tabacum*) senide eta antzeko da petunia, eta hortik datorkio guk darabilgun izen hori. Hego Amerikako tupi-guarani hizkuntzetan oinarritua da petunia: tabakoari tupiz “*petim*” eta guaraniz “*pety*” esaten diote.

Petuniaren loreak loreen hizkuntzan sumindura, haserre, erresumina eta hira adierazten ditu, eta tronpeta formako loreak direnez, haserre hitz eta oihuak zabaltzen dituela dirudi, operako tragedia gogora ekarriz.

Intsektu pila dabil petunia loretzan, baina atentzioa ematen du maiz ikusten ez den kolibri-esfingeak, horrek ere berezko balleteko dantza eta doinu ikusgarriak eginez. ●

# LANIRINA

## ARABAKO LAUTADAKO ZEREAL EKOIZLEEN ETA KONTSUMITZAILEEN ARTEKO ZUBIAK SORTZEN



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**A**rabako lautadako paisaiaren parte garrantzitsu dira gari eta zerealen zelai zabalak. Pentsatu daitekeenaren kontra, baina, bertan ekoizten den ia dena kanpora bideratzen dela nabarmendu du Arantza Arrien Lautada Landa Garapeneko Elkarteko teknikariak. “Lautadako lur landuen %60 zereala da, baina ia dena kanpoko pentsu edo garagardo fabriketara doa. Aldi berean, hemen kontsumitzen dugun irina kanpotik dator”. Gaurko munduaren aldrebeskeriak. Ekoizleak eta bertako kontsumitzaileak harremanetan jartzeko asmoz, Lanirina proiektua jarri dute martxan garapen elkarteak, hiru zereal ekoizlek, bi lantegi txikik eta Neikerrek.

### ZEREALAK KIMIKORIK GABE EKOIZTEA EZOHIKO DEN TOKIAN

Eredu ekologikoan ari den ekoizle bat eta horretarako bidean ari diren beste bi hasi dira Lanirina proiektuan, eta haiekin batera, lurretako eta Maeztuko obratzaile ekologiko bana. “Zereal soro hauetan kimiko ugari erabiltzen dira

orokorrean, eta modu jasangarriagoan ekoizteko akuilu izan nahi du proiektuak”, dio Arrienek. Neikerrek gomendatutako gari bariatateak jarri dituzte ekoizleek bina hektarea inguruko soroetan, eta harrizko errota txiki batean ehotu dute garia. “Lehenagotik hemengo pabiloi batean babarrunak garbitzeko eta ontziratzeko gune ireki bat eta oïlaskotegi txikitxo bat genituen martxan; bada, hor bertan jarri dugu errota”, azaldu du teknikariak.

Lehenbiziko irin txanda Lautadako komertzioetan eta ostalaritzan banatu dute, inkesta batekin batera: bertan, zein irin bariatate egokitu zaien, irin horrekin zer egin duten, urtean zenbat kontsumitzen duten eta Lautadan ekoiztutako irin ekologikoagatik zein prezio ordainduko luketen galdetu zaie. “Proiektuko kide diren obratzaileek, berriz, lau bariatateen irinarekin ogia, magdalenak eta pizzak egin dituzte, eta horien dastatzeak antolatu ditugu”, azaldu du Arrienek. Azken batean, proba horiekin bertako irinek zein interes pizten

duten ikustea da asmoa, etorkizuneko aukerak baloratzeko.

### ZEREALEN INGURUKO IKASTAROAK

Ingingintzarekin lotutako hainbat ikastaro ere antolatu dituzte Lanirina proiektuaren baitan. “Ekoizpen ekologikoan uzta nola bildu, zereala nola garbitu, errota motak... horrelakoak landu dira ikastaroetan, eta parte hartze handia egon da”. Bestetik, ekoizpeneko eta eraldaketa prozesuko datu guztiak hartu dituzte, eta irailerako prozesatuta edukitzea espero dute. “Horren arabera, jasotako datuak eta ditugun baliabideak kontuan izanda, negozio eredu bat diseinatzea izan da hurrengo pausoa”, iragarri du. Esaterako, ekoizleen eta lantegien artean kontratu eredu bat diseinatzea izan da ikastarotako lanetako bat, bi aldeentzat justua den eredu adostuz. “Proiektu pilotu bat da hau, baina espero dugu ekoizleek honekin aurrera egitea. Horretarako, baina, garrantzitsua da gauza guztiak ongi aztertutak izatea”, amaitu du. ●



## Elikagai ekologikoak osasunerako onuragarriak



Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua  
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi



## EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA



## 'Laia' aldizkaria, ARGIArekin batera

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**B**idasoaldeko irakurlea bazara, honezkero izango dira hiru urte *Laia* aldizkariaren lehen alea jaso zenuela etxean. BDSKOOP eraldaketa fabrikak –eskualdean Ekonomia Sozial Eraldatzailean dabilzan kooperatiba eta proiektuak biltzen dituen elkarte– Behe Bidasoan eta inguruko bailaretako beste herri batzuetan banatzeko sortutako argitalpena da, zonaldeko Ekonomia Sozial Eraldatzailea (ESE) erakutsi eta ekonomia egiteko beste modu bat kontatzeko helburuz sortua.

ARGIAri bere astekariaren banaketa baliatzeko proposamena egin zioten 2020an, eta etxe honetako balioekin bat egiten duen proiektua izanik, elkarlana hasi genuen. Ez da inguru horretan BDSKOOPeko kideekin egiten den elkarlan bakarra –bizikleta bidezko banaketa sistema jasangarrirantz egin izan da saiakera lehenago ere–; harremana beraz ondua zegoen, OlatuKoopeko kide ere badiren heinean.

Lau hilabete behin kaleratzen den *Laia* aldizkariaren hamargarren zenbakia banatuko da ARGIAren ekaineko azken astekariarekin, eta zifra

borobila profitatu dute hainbat gairen inguruan aritzeko. Aurreko zenbakietan ere askotariko gaiak jorratu dituzte, beti ESEren ikuspegitik landuak: lurralde, lan eta informazio burujabetza, zaintza lanak, kontsumo arduratsua, kooperatibismoa, ekonomia sozial eta eraldatzailea, arkitektura, feminismoa... eta askoz gehiago, elkarriketa, editorial eta erreportaje formatuetan.

Kooperatibagintza da proiektuaren ildo nagusietakoa, eta hain justu hamargarren zenbakiko editorialean horri buruz jardun dira: "BDSKOOP osatzen dugunok uste dugunez, kooperatiba izatea ez da, bere horretan, helburu bat", dio editorialak. Eurentzat kooperatiba tresna bat da, erabakien gaineko eskumena eman eta autokudeaketan laguntzen duen bitartean, gizartea aldatzeko erremintak aztertu eta frogatzeko aukera eskaintzen duena. Eta hori bete bete dator kooperatibagintzaz ARGIA duzun ikuspegiarekin.

Bidasoaldeko eta inguruetako lagunok, zorteko zarete urtean horrelako hiru aldizkari jasota ARGIArekin batera. Besteok, sarean irakurtzeko aukera duzue: [www.bdskoop.eu/laia](http://www.bdskoop.eu/laia). ●

## Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



"Argitaratzen dituen artikulua interesatzen zaizkidalako, arnas luzeko kazetaritza sustatzeko eta euskara lantzeko."

**Oiartzundik Olaintzek**

"Kazetaritza independentea bultzatu nahi dudalako."

**Getariatik Leirek**

"Kalitate handiko kazetaritza egiten duzelako."

**Bruselatik Xabierrek**

"Euskarazko komunikabideei laguntzea pentsatu dut. Beti irakurri izan dut ARGIA online, baina orain nire ekarpen txikia egiten saiatuko naiz."

**Bilbotik Kaietek**

"Informazio independentea bultzatu eta jasotzeko."

**Andoaindik Albertok**

"ARGIAk gure herrian egiten duen lana beharrezkoa iduritzen zaidalako."

**Baionatik Margak**


"Gustuko dudana eta osoki euskaraz idatzita dagoen aldizkaria delako."

**Pasai Donibanetik Jokinek**

"Lan bikaina egiten ari zaretelako."

**Usubildik Mikelek**





**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

# Ponpeia baino lehen

**V**esuvio, duela 3.800 urte. Sumendiak eztanda egin zuen enegarren aldiz, eta mendi magaleko Brontze Aroko Afragola herrixka errautsek estali zuten, K.o. 79an Ponpeia eta Herkulanorekin gertatu bezala. Bi erupzioak pliniarrak izan ziren, gas, arroka eta errauts kantitate handiak bota zituztenak, oso indartsuak eta, inguruko herriak suntsitzeaz gain, Europako kliman urtetan eragina izango zutenak. 79ko erupzioaren berri Plinio gazteak eman zuen, baina Avellino erupzioa –hala esaten zaio ia bi milurteko lehenago gertatutakoari– lekukoek ez zuten idatziz jaso. Eta, hala ere, 79an gertatu bezala, errautsetan egoera ezin hobean gordeta, denboran izoztuta geratu ziren arrastoek gertatutakoaren berri zehazki ematen dute.

Afragola inguruetan abiadura handiko trenara eraikitzen ari zirela topatu zituzten arrastoak 2005ean eta orduz geroztik arkeologoak gai izan dira erupzioa gertatu zen urte sasoa zehazteko. Zuhaitzen azpian fruitu helduen eta hostoen arrastoak topatu dituzte, eta herrixkan bertan, azken uztan bildutako elikagaiak. Horregatik erupzioa udazken hasieran



Duela 3.800 urte, Vesuviok eztanda egin zuenean, Brontze aroko herrixka bateko biztanleek ihes egitean utzitako oinatzak.

izan zela dakite, ziurrenik urrian.

Vesuvioren magalean jalkitako materialen geruzek adierazten dute erupzioa eztanda bortitz batekin hasi zela eta haizearen eraginez materialak ipar-ekialdean pilotu ziren. Aurre-

rago, haizearen norabidea aldatu zenean, materia bolkanikoak Afragolarako bidea hartu zuen, eta erupzioaren azken fasean errautsa eta ura sumenditik 25 kilometrora iritsi ziren. Lokatz bolkaniko horrek Brontze Aroko herrixka erabat estali zuen. Geruza bolkanikoak landare arrastoen molekula ordezkatzea eragin zuen eta, hala, zinerita izeneko materialazko molde perfektuak utzi zituen.

Giza arrastorik ez da ia aurkitu, ordea, eta horixe da Ponpeiarekiko alderik handiena, 79. urtean milaka hildako eragin baitzituen Vesuviok. Errautsetan gizakien eta ganaduaren oinatzak geratu ziren markatuta eta, horrek esan nahi du, Afragolako biztanleek ihes egitea lortu zutela, ponpeiarrek ez bezala. Erromatarrek ez zekiten Vesuivio sumendia zenik. Afragolarrek ziurrenik eztanda uneko haizearen norabidea izan zuten lagun, horrek ihes egiteko denbora gehiago eman baitzuen. Baina, agian, lo zegoela hain emankorra zen mendia erromatarrek baino hobeto eza gutzen zuten, eta bazekiten esnatzean nolako arriskuak zekartzan. ●



DAVID GODDARD

## Stonehengeri buruzko beste teoria bat

Munduko monumentu megalitiko ezagunenetakoa zertarako erabili zuten ez dakigu eta, berriki, beste teoria bat landu du Trevor Cox Salfordeko unibertsitateko (Manchester, Ingalaterra) ikerlariak. Monumentuaren erreplika eraiki du eskalan, orijinalean galdutako edo eroritako harriak ere ordezkatuta, eta eraikinaren akustika aztertu du. Eraiki-

nak sabairik izan gabe ere, zirkuluaren barruan dezibelioek gora egiten dutela ikusi du, eta zirkulutik kanpora, aldiz, barruko soinua uhinak oso ahul iristen direla. Eta hala ondorioztatu du zirkuluan egiten ziren ekitaldiak edo errituak eliteari mugatuta zeudela. Historiaren ere desberdinkeria nagusi zela, alegia. ●

“ ”

# Liburutegira joaten direnen zerbitzura jarri behar dira liburuak, ez alderantziz

Gonzalo Oyarzún

Ahaztu liburutegi eredu klasikoak, aurrera eta atzera ibiltzeko espazio murrizteko korridoreak; isilik ibili nahi eta kirriki-karraka lureko egur zaharrak salatzen zaitu zein apalen artean ari zaren liburuak arakatzen. Liburutegiak liburutetik harago doazela dio Gonzalo Oyarzún liburuzain txiletarrak ALDEEK euskarara ekarri duen *Liburutegi imajinatua. Komunitateak ereiteko lorategia* liburuan. Proposamen bat: liburuak erabil dezatela espazio osoaren %30, ez gehiago. Eta sortu topaguneak, komunitatea aberasteko jendearen elkarguneak.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**Liburutegia “komunitateak ereiteko lorategia” dela nabarmentzen duzu. Zeure aita lorezaina zela kontatu didazu lehen, eta liburuzaina zara zu. Bien arteko nahasketa da?**

Lorategiak diseinatzen zituen nire aitak, paisajista zen. Gauzak landatzearen ideia, moldekatzearena, diseinatzearena... uste dut hortik datorkidala. Liburutegiak, lorategiak bezala, diseinatu egin behar ditugu, bete behar duten funtzioa bete dezaten.

**Liburutegiak lorategietan? Lorategiak liburutegietan?**

Halako formulak baliatu daitezke, jakina. Eta badaude adibideak, berriki ezagutu

dudan Gironakoa (Herrialde Katalanak) esaterako, lorategi baten erdian dago liburutegia. Edo badira ere lorategiak liburutegien barnean. Baina ez diet loreei erreferentziarik egin nahi; esan nahi dudana da liburutegiak izan daitezkeela askotariko herri-komunitateak loratzeko eta hazteko leku perfektua.

**Zer da zuretzat liburutegia?**

Zentzurik zabalenean esanda, jakintza garatu nahi duen komunitatearen espazioa da. Ez da liburuzainarena, ez artxibategiena, ezta erakundeena ere... Bertara joaten diren herritarrena da, komunitatearena, arreta eta zerbitzua


jasotzen duten pertsonena. Guztientzat zabalik dago, eta jendearentzat espazio garrantzitsua eta erreferentzia izan behar du. Ez da nahikoa artxibategi gisa funtzionatzearekin.

**Liburuak mailegatzetik harago doa, beraz, liburutegiaren funtzioa?**

Liburutegia ez da soilik liburuen gordailua, ezta teknologiaren erreferentzia gunea ere, nahiz eta herrialde askotan eta jende askorentzat interneterako sarbide puntu bakarra izan. Ondarearen gordailu izan behar du liburutegiak, eta ondarea ez da soilik apaletan pilatzen. Ondarea, gainera, berregin egiten da etengabe. Pertsonen esku dago, komunitateko jendearen esku.

**Herri baten jakintza liburuetan gordetzen dela esan ohi da.**

Liburuak baino, liburutegiak dira jakintzaren gordeleku, hala izan behar-ko lukete. Jakina badagoela jakintza eta ondarea liburuetan eta interneten, asko gainera, eta norberaren eta komunitatearen ezagutzarako oso aberasgarri izan behar dira, baina harago joan behar dugu. Liburutegira joaten direnen zerbitzura jarri behar dira liburuak; orden horretan pentsatu behar dugu, eta ez alderantziz. Komunitateari jakintza emateko modu ugari daude, ez soilik liburuak mailegatuta.

A photograph of two men sitting in a room with a large arched window. The man on the left is younger, with dark hair and glasses, wearing a black t-shirt and shorts. The man on the right is older, with grey hair and glasses, wearing a dark jacket and pants. They are sitting in light-colored wooden chairs with cushions, facing each other. A small round wooden table between them holds several water bottles and a fern. The window behind them is large and arched, showing a view of green trees outside. The room has a light-colored wall and a polished floor.

Donostiako Tabakaleran elkartu  
gara Oyarzúnekin. Gustuko du  
lekua, konbertsatzeko lekuak  
daudelako eta oso irekia delako.

### Elkarguneak proposatzen dituzu, espazio sozialak.

Pertsonengan dago jakintza. Gerra bizitu zuen agure baten bizipenetatik asko ikas dezakegu, migratzaile batekin hitz eginda ere bai... Ezagutzak partekatua izan behar du, eta jakintza ahal da liburuetan edo datu-base handietan egon, baina baita pertsonak oinarri dituen liburutegian ere.

Herrialde Katalanetan egon naiz, eta ezagutu dut komunitatean zientzia sortzen oinarritzen den liburutegi bat. Kanariar Irletan, bestalde, *Bioleta Espazioa* deiturikoa ezagutu dut, genero kontuak ardatz dituen. Beste liburutegi bat Ugandan, duela urte batzuk joan nintzena: xaboa fabrikatzen ikasten dute, eta komunitatearentzat beharrezko diren erremintak sortzen dituzte liburutegiko tailerrean.

### Tabakalera gaude, Donostian, eta aparteko gela batera etorri gara elkarrizketa egitera. Dena den, egia esan, Tabakalera izan daiteke salbuespena liburutegi ereduaren artean. Baina galdetu nahiko nizuke: ez da isiltasuna lehenesten liburutegietan?

Helduek, zaharrek, isiltasuna nahi dute, egia da. Eta umeei zarata handia egiten dute, enbarazu egiteraino. Helduak, askotan, liburutegira joaten dira bake bila, isiltasuna topatzera, irakurtzera eta tarteka tailerrean parte hartzera, baita lo egitera ere zenbait herrialdeetan. Haurrek, aldiz, herriko plazaren gisako espazioa nahi dute jolasteko, ba-

rrer egiteko, korri egiteko... Eta bestalde, tailerrean, ikastaroetan, solastatu egiten dira parte-hartzaileak. Ez dago aparteko zaratarik, baina soinua dago hor ere.

Liburutegiaren parte da hori guztia, eta errespetatu behar da. Ongi pentsatu eta diseinatu behar dira espazioak, ordutegiak eta denborak. Liburutegiek zerbitzuak batu eta aberastu behar dituzte, inoiz ez kendu eta murriztu. Beti egongo da konforme ez dagoen jendea, eta horregatik sortu behar dira mota guztietako liburutegiak. Bakoitzak bere identitatea izango du, bere publikoa.

### Udal hauteskundeak izan ditugu duela gutxi Hego Euskal Herrian, eta herriren batean edo bestean, alderdi batzuen proposamenetan entzun ahal izan dugu "liburutegi eta espazio moderno eta garaikideak" sortzeko asmoa. Ez dakit iradokizunik izango zenukeen...

Udalek eta erakundeek bultzatu behar badituzte proiektuak, gaizki irtengo di-

rela esango nuke. Herritar talde txiki baten ekimenez balitz ere, gaizki. Hala eta guztiz, behin sortutakoan, espazio horiek hutsik geratzen dira. Espazio moderno eta garaikideak sortu behar badira, herritarren parte-hartze erabakitekoarekin egin behar da. Kalera irten eta jendea entzun.

### Eta hori nola egiten da?

Badakigu zeintzuk diren herritarren beharrak? Agian oharretatik ginateke ez dituztela soilik liburuak behar, eta elkargune gehiago behar dituztela, programak, tailerrak, zitak... Elkartzeko aitzakiak. Isiltasunarena aipatu didazu lehen: orain, bogan dago zarata egitea liburutegi batzuetan, orain arte beti isiltasuna lehenetsi delako. Baina zarata nahi al dugu? Galdetu dugu zer nahi dugun?

Dena ez da informazioa jendearen eskura jartzea, liburutegi onenak, berrienak eta bestelako tresnak eskaintzea. Pertsonen nahiak ezagutu eta ahal den jende gehienaren beharrak asetzen ahal izango behar dugu.

### Bartzelonako liburutegi sistema gustatu zaizula esan didazu.

Bai, sare indartsua osatu dute eta helburuak jendearengana, sentsazio hori izan dut. Espainiako legediak laguntzen du horretan, baina jakina, lekuaren arabera asko aldatzen dira gauzak. Borondate kontua da.

Argentinan, komunitatearen liburutegiak daude –"liburutegi popular" gisa ezagunak–, eta murgiltze ereduak ona da. Guatemalan, indigenek sortu zituzten liburutegi komunak ezagutu ditut. Gerraostean sortu zituzten, gazteek hezikuntza apur bat jaso zezaten, baina gaur egun tradizioen jakintzaren gordailu handia dira. Esaterako, hainbat tailer eta formulen bitartez, arbasoek josten zuten gisan josten ari dira gaur egun.

### Horixe da liburuan aipatzen duzuna: liburutegiek kapital soziala eratzen laguntzen dutela.

Oro har, arazo larria dugu liburutegiak ulertzeko aukeragun moduan. Liburutegiak hautematen dira ondasun kulturala gordetzeko eta mantentzeko espazio gisa, autore eta obrak handiak ezagutzeko balio dutelako. Egia da, eta ongi dago, baina funtzio ebidenteagoak ere badituzte. Kapital soziala aberasten dute, esaterako. Loturak egiten dira jendearekin, hortik hasita.

“ ”

*Komunitateari jakintza emateko modu ugari daude, ez soilik liburuak mailegatuta*





Boli Kostako adibide bat jarriko dut: Grainothèque edo aleen biblioteka gisa ezagutzen den liburutegia, landa-eremuan dagoena. Bazuten informazio-artxibo handia, liburu askorekin, ikerketa-txostenak, datu-base bereziki aberatsa ere bai... Baina apenas erabiltzen zen. Duela urte batzuk, bertara joandako boluntario talde batek, Nazio Batuen eskutik, komunitateari galdegin zion ea zeintzuk ziren haien beharrak. Jatekoarekin zuen zerikusia: haziak behar zituzten, tomate-aleak eskatzen zituzten. Izan ere, haziak aurrez prozesatuak direlako, erabilera baka-rrekoak dira; hau da, behin baino ez dute ematen fruitua, eta fruitu horren haziak ez dute beste fruiturik ematen. Hazi jasangarriak behar zituzten, horixe eskatzen zuten.

Haziak mailegatzeko zerbitzua zabaldu zuen liburutegia, dohainik, eta sistema zen urte batean hainbeste hazi hartzen zituenak hurrengo urtean beste hainbeste itzuli behar zituela, beste baten zerbitzura jartzeko. Horrela, 2018an, hiru tona hazi trukatu ziren.

“ ”

***Badakigu zeintzuk diren herritarren beharrak?***

***Agian ohartuko ginateke ez dituztela soilik liburuak behar, eta elkargune gehiago behar dituztela***

**Kapital soziala ez ezik, kapital ekonomikoa ere bai.**

Liburutegiak inbertsioa dira, komunitatea aberasteko aukera, baita ekonomikoki ere. Ugandan xaboia egiten dutela aipatu dut lehen, eta xaboia ez ezik, baratzeak nola landu eta zaindu ere irakasten dute.

Horrez gain, itzul gaitezen oinarriara edo ezagun zaigun horretara: liburueta-

ra. Ikerketa askok baieztatu dute, plazerrez irakurtzen duen 16 urteko gazteak, irakurtzen ez duenaren aldean, aukera gehiago dituela etorkizun ekonomikoko hobe izateko, besteak beste ezagutza eta abilezia psikosozial handiagoak dituelako. Inbertsioa da, finean.

**Baina inbertsio gisa beharrean, gastu moduan ikusten badira, zer?**

Bistan da kalte lazgarriak utzi zituela 2008an lehertu zen finantza krisiak. Liburutegi publiko asko itxi ziren, eta horietako asko ez ziren atzera ireki. AEBetan balantzea oso negatiboa izan zen. Ingalaterran 86 liburutegi publiko itxi zituzten, eta batzuk ez ziren itzuli. Afrikako hainbat herrialdetan, aldiz, liburutegiak zabaldu zituzten; horixe izan zen aurkitu zuten soluzioa komunitateko familiei sostengua emateko.

**Pandemiaren kalteak ere nozituko ziren.**

Pandemiak ere kolpatu du, jakina. Munduko liburutegi guztiek ateak itxi zituzten, baina soluziorik aurkitu zuten

## Kibera (Kenya)

Nairobi hiriburuko auzorik handienetakoa eta txiroenetakoa da Kibera. Zazpi tribu aurkari bizi dira auzo berean. Inoiz ez dira eseriko mahai berean; ez diote elkarri bisitarik egingo, eta seme-alabak ez dira lagunak izango eskolan.

Kiberaren erdian liburutegi bat dago; ezohiko espazioa da. Energia elektrikoa eta interneta ditu. Etxean sekula izango ez dituten liburuak eta teknologiak erabil ditzakete.

Liburutegi hori espazio ireki eta segurua da, eta aurkariak diren zazpi tribuetako kideak mahai berean eser daitezke.

Besteak beste, emakume gazteak haurdun geratzea ekiditeko programa eskaintzen dute bertako langileek. Pandemiaren ostea "oso tristea" izan zela dio Oyarzúnek, neska gazte asko haurdun itzuli zirelako konfinamendutik. "Liburutegiak oso garrantzitsuak dira jende askorentzat; askoren bizitzan eragiten dute".



SHOFCCO GKE

## Aarhus (Danimarka)

Dokk1 liburutegia komunitatearena da, eta "hazkundera ospatzen dute", literalki esanda. Hurbileko ospitale batean, komunitateko kide bat jaiotzen denean, kanpai handi bat jotzen dute. "Hurbiltasunezko ikuspegi afektiboa" aldarrikatzen dute, kide bakoitza osotasun baten parte dela defendatuta.



ARCHDAILY.CL

## San Javier La Loma (Kolonbia)

Medellin hiriaren periferian dagoen auzo txiroa da. Auzoko azken mapa ofiziala 1971koa zen. Zaharkitua geratu zen, eta erabat ikusezina eta baztertua zen Medellinen. Auzokideak antolatu egin ziren duela hamarkada bat, eta dagoeneko sarean ere ikusgai dituzte auzoko kaleak, eraikinak eta negozioak, eguneraturik. Orain, haurren hezkuntzan jarria dute fokua.



BPPFILIALALOMA.WORDPRESS.COM

han eta hemen. Londres ipar-ekialdeko herrixka bateko langileek, adibidez, telefonoz egin zuten lan. Liburutegiko langileek, erabiltzaile ziren adinekoei etxeetara deitzen zieten zer moduz zeuden galdezka, laguntza eskainiz, baita liburuak etxera eramateko ere. Edo telefonoz irakurtzen zizkieten hainbat pasarte. Liburutegiko arduradun batek 60 orriko liburu bat irakurri zion 101 urteko emakumeari, telefonoz.

Pandemia aurretik ere, adineko pertsona horiek ez ziren liburutegira liburu bila joaten; hitz egitera joaten ziren, konpainia bila, bakarrik zeudelako eta ez zeukatelako norekin solastatu. Izan ere, liburutegia konbertsatzeko espazio bikaina da. Idazketaren aurretik sortu zen ahozkotatua, eta egunen batean liburu guztiek su hartzen badute ere, ahozkotatua geldituko zaigu. Balioan jarri behar da.

**Adinekoak aipatu dituzu, eta mahai gainean jarri nahiko nituzke gazteak. Gerturatzeko dira liburutegietara?**

Eskaintzen al zaie zerbitzurik? Nahiko komiki, manga... badituzte? Hip-hop-a dantzatu daiteke liburutegietan? Musika sortu daiteke?

**Leporatzeko zaie ez dutela irakurtzen.**

Helduen logikatik egiten ditugu halako balorazioak. Horixe nahi dugu, jende guztiak irakurtzea. Baina gazteentzat ez da libururik egiten, eta ezer gutxi daukate erakargarria dena. Hori ere planteatu beharko genuke: haur literatura ederra da, erakargarria, liburutegi askotan euren txokoak dituzte gainera, jolasteko lekuak... Baina behin 12 urteak igarota, ezer gutxi topa daiteke. Zergatik ez daukate eskubidea emozioz beteriko liburu erakargarri eta ikusgarriak irakurtzeko?

**Derrigortutako irakurketa ereduak sustatzen da. Akaso askoren harreman liburutegiekin horretara mugatzen da, irakasleak agindutako liburuaren bila joatea.**



“ ”

***Pandemian, liburuzain batek 60 orriko liburu irakurri zion 101 urteko emakumeari, telefonoz***

Beti antzinako liburuak irakurtzen dira, gainera; duela hamar, duela hamabost urte argitaratutakoak, edo gehiago. Irakasleek ez dituzte aldatzen, sistemak ez du zerrenda eguneratzen. Jakina aspertuko direla!

Horrez gain, gazteek ez dutela irakurtzen dioten horientzat: Bartzelonako liburutegi batean izan nintzen aurrekoan, inaugurazio ekitaldian lehenbizi, eta handik bi egunera berri. Komikibildumak guztiak hegan joan ziren azkar batean. Ez dute irakurri nahi ala irakurri nahi duten hori gutxi ekoizten da?

**Gazteentzako elkarguneak ere sortu beharko dira liburutegietan.**

Liburutegiak elkargune izan behar du pertsona eta klase guztientzat, eta askotariko espazioak izan behar ditu. Utz diezaiegun gazteei altu hitz egiten, baita musuak ematen ere, eta bikotekidearekin lehen esperientziak garatzen. Artistikoki, politikoki, zientifikoki... adierazteko lekuak behar dituzte. Guztiok behar dugu gure txokoa. ●

BABESLEA:

- ✓ 305.000 biztanleko lurguneko euskalduna
- ✓ 101 udal

**arnasa gara**  
**euskaraz gara**

"Beti lurpean eta bazterretik zatozen erreka horri, zuri, itsasoa zor dizugu, justizia zor dizugu, ausardia zor dizugu, etorkizuna zor dizugu. Eta gure lo kanta berriekin amets egingo duten haur jaioberriak esnatu daitezela euskararen herrira".

Jon Maia Soria





LIBURUA

# Une hunkigarria



THE ERIC CARLE MUSEUM OF PICTURE BOOK ART

## ARMIARMA OSO LANPETUTA DAGO

TESTUA ETA ILUSTRAZIOAK:

**ERIC CARLE**

ITZULPENEA:

**MANU LOPEZ GASENI**

PAMIELA 2023

**XABIER ETXANIZ ERLE**

**E**ric Carle idazle eta ilustratzaile estatubatuarra ezaguna da euskal literaturan. Izan ere, gutxi bezala, bada haren lan bat, *The very hungry caterpillar*, euskaraz hiru edizio ezberdin izan dituena: *Gose handiko beldarra* (Kalandraka, 2007), *Beldar gosetia* (Ikas, 2008) eta *Beldar txiki gosetia* (Kokinos, 2012), eta laster laugarren bat ere izango duena Pamielaren eskutik. Bestalde, 2012an plazaratu zen euskaraz *Zaldi urdin bat margotu zuen artista* (Pamiela), Franz Marc artista modernoaren omenegintako lana, eta bere lan askotan bezala, collagearen bidez, kolore biziak eta ezohiko konbinazioen baliatuta, loritu ohi du irakurlearen arreta.

Oraingo honetan Carlek aurretik erabili izan ohi dituen animalien irudiak

agertzen ditu, trazo argien bidez eta collage moduan osaturiko animaliak; istorioa egitura errepikakorrean azaltzen digularik.

Armiarma bat dugu istorio honetako protagonista, amaraun bat iruten ari den armiarma. Animalia batzuk agertuko zaizkio ea itzuli bat egin nahi duen, beldar pixka bat jan, larrean lasterka ibili, haitzetan saltoka, lohian iraulkatu... Eta armiarmak ez du inoiz erantzuten, ez die kasurik egiten, "oso lanpetuta zegoen", harik eta oilarrak "euli gogaikarri bat harrapatu nahi?" galdetzen dion arte. Izan ere, zalduak, behiak, ardiak, ahuntzak, txerriak... galdetu izan diotenean ea beraiekin aritu nahi zuen, beti ageri zen euli bat animalia horiekin, azkenean amaraun harrapaturik geratu den eulia.

Ezkerreko orrietan beti ageri da animalia handi bat hizketan (eta eulia), eskuinean, aldiz, armiarma dugu amarauna egiten; ezkerreko irudia aldatzen den bitartean, eskuinekoan armiarmaren lana garatzen ikusiko dugu, bi elementuak (animalia eta amaraunaren garapena) ikuslearen arreta erakarrita.

Egitura errepikakorrek, animalien ilustrazio erakargarriek, istorioaren eboluzioak... eta euliak nahiz amaraunek duten erliebeak (hatzekin nabaritzen dena) oso istorio gomendagarria eta egokia bilakatzen du *Armiarma oso lanpetuta dago* hau haur txikiei kontatzeko, haur txikiekin batera ikusteko, haurrekin, eta gero beraiek bakarrik, gozatzeko une hunkigarri batez. ●





MUSIKA

# Hor bizi naiz ni bakean



GUILLAUME FAUVEAU



## LAUPABORTZ AIRE TTIPI

HAIRA

USOPOP, 2023

XALBA RAMIREZ

**X**ori berriketaria 1871ko kanta da. 200 urte erraz esaten dira, e. Parisko Komunaren urtea zen hura, atera kontuak. Inperialismo hitza ez zen oraindik sortua, baina praktika bai. Eta han zegoen, Sarako Jean Baptiste Elizaburu Egipton, Napoleonen alde borrokatzen, bere borondatearen kontra.

Saratarrak idatzi zituen bertso batzuk, bere herriatik hegan etorritako txori batekin hizketan aritu zenekoa, herriarekiko saminaz eta maite duen jendea faltan hartzeaz. Txoriñoari eskatuko dio bere herriaz hitz egiteko: "Mintza hakit ahaidez-eta, mintza lagun on hekiez, / Mintza, nihor ahantzi gabe, maite ninduten guziez".

Ez dira urteak alferrik pasatzen, eta mundu hori jada ez da gaur dena. Gerrarak bai, baina iraultzak ez dira han hemen gertatzen, tamalez. Giza sentimenduenak, ordea, zenbat aldatu dira? Ez diot

esango unibertsalak direnik, desiraren pare, eraikia delako. Baina bakardadeari abesteko zenbat modu daude? Nola heldu sentimenduen barreneraino?

Urteak ez dira alferrik pasatzen, baina zaharrak zaharrena berririk berriena da, inoiz ez delako ebatzen ahal. Tradizioaren iturri amaigabetik edaten ari da Peio Erramouspe saratarra bera ere. Bertsolari eta kantarien leinukoa, bere ondare ditu euskal tradiziozko kantu gordeenak, eta dakien moduan ari da orain kaleratzen, sintetizagailuekin eta musika elektronikoarekin.

Bidaia laburra den arren, bidaia azkarra eta indartsua egin du *Laupabortz aire ttipi* lan zoragarrian. Aipatu kantatzaileak, *Goizeko Ihintza*, *Nauna, nauna jin*, *Ikusten duzu goizean* eta *Eraztuna* kantak batu ditu Usopop zigiluarekin kaleratutako lan zainduan. Azkena, herriko herrikoia da, han hemenka ez-

berdin abesten den horietakoa -XVIII. Mendetik datorren Eper zango gorriaren bertsioa, alegia.

Kanta bakoitzak du bere atmosfera zaindua, eta bada bat, beste ororen gainetik ateratzen dena: *Ikusten duzu goizean*. Usopopeko lagunak antolatutako egonaldi magiko batean garatu zuen, Larrun mendiaren puntan. Anne-lise Cazamayou, Felix Buff, Jona Bonnetta, Xabi Etxeberri eta Maia Iribarne lagun... zer nahi duzu esatea ba? Urteko euskal kanturik ederrenetakoa.

Urpekari bat. Hori da musikari on bat. Eta hori da oraintxe Peio Erramousperen *Haira*. Ozeanoaren barrenera sartu eta altxorrek ateratzen dituenak gainontzekoontzat. Mundua amaitu ez bada, 200 urte barru jarraituko dugulako gauza inportantez abesten. Bakean bizitzeko etxeak bilatzen, alegia. ●



# Amaraunaren trantze zoragarria

✍ IÑIGO BASAGUREN-DUARTE 📷 EIDER ITURRIAGA

**E**rtzetan egiten den musikak badu lekurik gurean. Argi eta garbi geratu da Kaiola Festibalaren zarpigarren edizioan. Ez soilik festibal honen ibilbide luze eta oparoagatik, baita Euskal Herriko bateko eta besteko puntuetatik bertara hurbildu ginen askotariko jendeagatik ere. Torrezabal Kultur Etxeko auditorioa dotore eta ilun atondu zen antolatzaileek presatuta zuten menuaz gozatu ahal izateko.

Festibala nahiko puntual hasi zen eta hori eskertzekoa da. Maria W Horn-ek eman zion hasiera eta hiru ordu laurdenez gure pertzepzioekin jolasean ibili zen. Sintetizadoreak lanabes gisa erabilita, espazio soniko ederrak sortu zituen eta horietan murgildu gintuen. Bolumena topera zegoenez ezinezkoa zen suediarren armiarma saretik ihes egitea. Ezta beharrik ere, han barruan sentsazioak, bai fisiko bai mentalak, gozamen handia baitziren.

Bigarren proposamena digeritzeko zailagoa bazen ere, publikoak Mette

Rasmussen saxofoilariaren emanaldia-ekin gozatu zuen. *Free Jazz* dosi ederra eskeini zigun eta aho bete hortz utzi gintuen instrumentuaren eta espazioaren menperatze mailarekin. Berarentzat ere ez du erraza izan behar saxoaren laguntzarekin soilik taularatzea eta bere proposamena defendatzea, baina aise gaingiditu zuen frogia.

Zeozar azkarra afaltzeko denborarik eman gabe hasi zen Hackedepicciotto-oren kontzertua. Berlinetik etorritako bikotea eskarmentu handikoa da. Danielle de Picciotto artista aski ezaguna da eta Alexander Hacke gaztetatik hasi zen Einstürzende Neubauten taldean jotzen. Bien artean proposamen ederra eratu dute: paisaia onirikoak, psikodelikoak eta indar handikoak eraikitzen dituzte abesti bakoitzarekin.

Sarah Davachi taularen atzeko partean kokatu zen organoarekin, izkina batean. Bere proposamen minimalis-tarekin bat zetorren hautua izan zen

## KAIOLA FESTIBALA


**NON-NOIZ:** Galdakaoko Torrezabal Kultur Etxean, ekainaren 3an.

eta asmatu egin zuela uste dut. Nota bakarra jo eta horren ganean jolasten eta sortzen ibili zen, gu guztiok trantze egoeran sartuta. Inkontzientearen barneko bidaiaren soinu banda baino, erritu gidatua izan zen kanadiarraren emankizuna.

Festibalari bukaera emateko Attila Csihar aukeratu zuten antolatzaileek. Mayhem taldeko kide ohia izateak erakargarritasun nahikoa zuen egia esan. Ikusmin handia sortu zen aurkeztu behar zuten Void Ov Voices proiektuaren inguruan, zeinak erritu baten antza duen. Liturgia okultista honen lehenengo minutuak interesgarriak izan ziren ere, bereziki ahots jokoarekin sortu zuenak deitu zuen arreta, baina azkenean errepikakorra eta aspergarria egin zen. Proposamen artistikoa baino, zentzugabeko *performance* parodiko baten antza handiagoa hartu baitzuen. Pena, bukatzeko aho zapore gazi-go-zoarekin utzi baigintuen. ●



## Gurutzegrama



### EZKER-ESKUIN:

**1.** Mehatxu. / Gai garden likatsu, zenbait zuhaitzen enborrei dariena. **2.** Bare, lasai (alderantziz). / Atera. **3.** Alegiazkoa. **4. Bizkaiko mendia (argazkian).** **5.** Arin, azkar. / Zurtza denaren nolakotasun. **6.** Bera. / Berritzera behartu. **7.** Ustea, ikuspuntua. / Onura, mesede. **8.** Deusik ez den ..., nagusia morroi. / Jakinaren gainean.

### GOITIK BEHERA:

**1.** Ugaztun mota, idiaren antzekoa, bizkarrean gantzeko konkor bat edo bi dituena. / Zendu. **2.** Gaixo. / Zeure. **3.** Seinalerik. **4.** Prestatu, moldatu. **5.** Otsoaren oihu. / Ugaritasuna adierazten duen atzizki toponimikoa. **6.** Ospakizun, festa. / Kreditu txartelaren lehenengo sei zenbakiak. **7.** Desagertzea. **8.** Zugarramurdiko auzoa. **9.** Magnesioaren ikurra. / Amildegia, haitzarteko hutsunea. **10.** Gipuzkoako herria. / Elementu kimiko. **11.** ... egin, eskaini eta ez eman. **12.** Okaran. **13.** Arrantza tresna. **14.** Fruitu bilketa. **15.** Nuen, haiei.

## Sudokua

ERRAZA



		8	3				1
	1	2	6	9	7		
6	8	1			9		
	7	1	3		5	6	2
	5		7		8	3	
	6	3	5	8		1	9
1	8	6	4	5		2	9
5		4			1		6
					8	1	4
							5

ZAILA

					9		
8	9	6					2
3	7		4	5		8	9
	1		6	2			9
			1				4
4	2	3				5	
	8					9	3
9	4		3				
		1					8

## Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



## Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Xumea, umila
- Apur bat bustia
- Higitzen den airea
- Itsusi
- Zenbat dirutan
- Airean higituz
- Bidegunea, tartea
- Denbora tartekak
- Ahalmena, boterea
- Zati txiki
- Igarobide
- Zama
- Irrika, grina

XEHEA
PASIO

### EBAZPENAK

NOLA.  
HOLA, GERO EZ JAKIN  
LEHEN HALA, OKAIN  
ATSOTZITZA

6	3	1	9	4	2	2	7	8	5
9	4	5	3	7	8	1	2	6	6
2	8	7	5	1	3	6	4	4	4
4	2	3	8	9	7	5	6	1	1
7	6	1	3	5	2	2	4	8	8
5	1	8	6	2	4	3	9	7	7
3	7	2	4	5	6	8	1	9	9
8	9	6	7	1	3	4	5	2	2
1	5	4	2	8	9	6	7	3	3

### ZAILA

9	3	7	2	6	8	1	4	5	5
5	2	4	9	7	1	3	8	6	6
1	8	6	4	5	3	2	9	7	7
4	6	3	5	8	2	7	1	9	9
8	7	1	3	4	9	5	6	2	2
2	5	9	7	1	6	8	3	4	4
6	4	8	1	2	5	9	7	3	3
3	1	2	6	9	7	4	5	8	8
7	9	5	8	3	4	6	2	1	1

### ANAGRAMAK

ERRAZA  
1. ZERBU, HIL, 2. ERI, ZURE, 3. MARKAKRIK, 4. JAKINEAN, GOITIK BEHERA:  
HURA, BERRIARRAZI, 7. IRITZIA, ONTARTE, 8. LEKUAN, 3. BIRTUALA, 4. KOLITZA, 5. ZALU, ZURZATZUN, 6. ANTOLATU, 5. ULU, ZA, 6. JAI, BIN, 7. GALTZA, 8. OLAZUR, 9. MG, ARROA, 10. AIA, ZINK, 11. TATI, 12. ARAN, 13. SARE, 14. UZTA, 15. NIEN.

# Ainara Garcia Goitiandia

SORGINKERIA IRRATIA



## ARDI BELTZA

Haur zela, "gizonen jokabidea" zue-  
nean, gizarteak zuzendu egiten ziola  
sentitzen zuen. Ardi beltza sentitzen  
zen sarri. Berak nahi zuena egiten  
segitzen zuen, ordea. Etxekoen gai-  
netik, lagunaren gainetik, munduaren  
gainetik... "Munduak egunero eraso-  
tzen gaituela sentitzen dugunean,  
oso bakarrik sentitzen gara", azpi-  
marratu du, "Feminismoa aurkitu  
arte, noski". Mugimendu feministako  
kidesasuna atsegin du. Ahizpatasu-  
nean ibiltzen da gustura, eta garaian  
eskas zituen aliatuak ez zaizkio falta  
gaur egun. Jada ez da ardi beltza.

## "Badira behin gure lana entzunda izena jarri diotenak jasaten duten indarkeriari"

Zilindro handiko motoak atsegin ditu Ainara Garcia Goitiandiak, eta bere egunerokoa ere zilindro handiz bizi du, abiadura eta erritmo handian. "Zeozer txarto dagoela" pentsatzen zuen jada txikitatik. "Zergatik da baloia beti mutilentzat? Zergatik egon behar dugu emakumeok bazter batean, kromoetan olgetan?". Goitiandiak "feminista erradikal" gisa identifikatzen du bere burua, amorruez bizi baitu emakume izan edota sentitze hutsagatik zapaldua izatea. Langile klaseko familia batean hezi eta hazia, hegan egiten ikasi du, eguneroko ametsak erronka gisa hartu eta poliki-poliki bere proiektua sortuta: [www.sorginkeriarratia.eus](http://www.sorginkeriarratia.eus).

 AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ  HODEI TORRES

### Podcastak oso modan daude.

Guretzat moda baino askoz ere gehiago da. Une latzetan beti pentsatu izan dut zeinen garrantzitsua den umorea. Emakumeok umorerik gabe hil egingen ginatkeela uste dut, hamaika zapalkuntzari aurre egin behar izaten baitiogu egunerokoan. Horiek denak umoretik lantzea eta eraldatzea errazagoa dela pentsatzen dugu, eta dibertigarria da.

Libertad Daganzorekin bate-  
ra egin dut lan, bikote ederra osa-  
tzen dugu, irri eginez kontzientzia  
ere sortzen dela uste baitugu biok.  
Emakumeekin eta emakumeentzat  
egiten dugu irratia, feminismo erra-  
dikaletik. Egun, emakumeek espe-  
txeetan duten egoera ikertzen ari  
gara, eta umore puntu batekin lan-  
tzen ez badugu gaia, egoera zinez ta-

malgarria azaleratuko genuke, hala delako. Baina geure buruaz guk bai egin dezakegula barre, eta ez gizon-  
nek haien gizonkeriaz.

### Besteak beste, umeen ipuinak larrutzen dituzue.

Lan asko dago esparru horretan. Pentsa, orain *Sirenatxo* atera dute berriz, sirena bera arrazializatua da eta jendeak "iraultzaile" gisa hartu du orokorrean, baina esklabo izaten jarraitzen du oraindik. Kondaira guztiz patriarkala da, eta arazoa ez da zuria ala beltza izatea. Azal beltzekoa bihurtu delako modernoak eta inklusiboak ote gara orain... Bere ahotsa, buztana eta erreinu osoa galtzen jarraitzen ditu gizon batengatik. Hori da mezua, eta ez besterik.



"Feminista erradikalak gara, ez mutur batekoak ala bestekoak garelako, zapalketaren muineraino joaten garelako baizik".

Gu Ursula sorginaren alde gaude; bera da sirenatxoari aurre egiten dion bakarra.

### **Erromantizismoan, ordea, sorgina beti gaizto...**

Ursula lodia da, itsusia, azala morea du eta karrankaria da. Irudi horrekin, nola izanen da haurren gustukoa? Eta uste duzue berak dituen botereekin, argal, polit eta zuria izatea ezinezkoa zaiola? Berak nahi duelako da morea, itsusia eta ubela.

*Ederra eta piztia* klasikoa ere oso gogorra da: zahar edo agure batekin ezkontzen dira neska txikiak, eta edertasuna barruan dagoela esaten zaie. Imajinatuko genuke alderantziz izango balitz? Oso mezu gogor eta gordinak dira, arriskutsuak. Ipuin hauek larrutu eta diren bezala kontatu behar dira.

### **Podcasta eraldaketarako bidea izan daiteke?**

Jakina. Orain arte egindako ibilbidean denetarik ikusi dugu eta gauza asko heldu zaizkigu. Jendeak babesa eman digu eta gurekin asko ikasten duela esan. Badira emakumeak behin gure lana entzun

ostean izena jarri ahal izan diotenak oharkabean jasaten ari ziren indarkeriari. Modu dibulгатiboa da geurea, eta zabaldu behar dugu, izenik ez duena ez baita existitzen. Guk informazioa eskaini eta eraldatu egin nahi dugu feminismitik. Indarkeria mota asko ezin izan dugu izendatu denbora luzeegian.

### **Politikoki zuzena da "feminista erradikala" izatea?**

Feminista erradikalak gara, ez mutur batekoak ala bestekoak garelako, zapalketaren muineraino joaten garelako baizik. Duela 50 bat urte sortu zen egungo feminismoaren olatua sexu askatasunaren ildotik, eta bulkada horretan sortu zen feminismo erradikala: prostituzioaren abolizionista, generoaren abolizionista... Edozein salerosketaren abolizionista. Ni horrekin identifikatzen naiz. Langile arrunta ezin da saldu edo erosi, eta emakumea bai, amodioaren eta sexuaren izeanean? Beste kolektibo batzuetan permititzen ez dena, emakumeekin egiten da.

### **Sorginkeria Irratia izena ez da kasualitatea, ezta?**

Akelarrearen kontzeptua oso zikinduta

ikusten da gizartean, eta guretzat akelarrea emakumeen batasuna da, batzarra, gure minak, gogoetak, irriak eta jakintzak partekatzea ahalbidetzen duena. Hori zen lehen ere, baina zikindu egin da, eta hitza garbitu nahi dugu proiektu honen bidez. Sorgina ez da hitz itsusia; hitz ederra da, eta akelarrea ere bai.

### **Sorgin eskola ere baduzue.**

Podcastarekin hasi ginen baina harago joateko aukera ikusi orduko aurrera egin dugu. Berriki, unibertsitate ikasketak egiten ari diren emakumeentzako formakuntzak eskaintzen ditugu gerta daitekeen indarkeriaz ikas dezaten. Kontzientzia feminista handiko emakume gazteekin lan egiteko aukera dugu, eta esan dezakegu Euskal Herrian emakume feminista kontzientziatu eta formatuak ez direla falta, zorionez.

### **Sorgina erratzarekin ala erratzik gabe?**

Erratzarekin, dudarik gabe. Baina erratza ez zaborra garbitzeko, hegan egiteko baizik. Gure entzuleei, irratian, erratza hartzeko aukera luzatzen diegu, gure egitasmoa babesteko modu bat delako. ●

# Gizajale handia

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**P**asa den asteetako notiziek ez ote diguten utzi “begi-ninia hilik”, Pio Barojak zioen moduan, “itsasoari, gizajale galant horri, begira egonagatik”. Felipe Juaristik itzulita euskaraz irakur ditzakegun ipuin barojatarren artean, *Angelus* izaten da bueltatzeko sarrien eskatzen didana, pare bat orrialdetan kondentsatzen duelako zerbait esentziala: ur handitara doazenak egon daitezkeela “arriskueta zailduak eta itsasoko borroketara eginak”, eta egunak eduki ditzakeela koadro atsegin baten koloreak –“eguzkia, izpi distiratsuak erakutsiz, hodei baten zirrikitutik irteten zen eta haren aho gorri antzekoa itsasoaren gainean islatzen zen dardaraz”–; berdin da, itsasoratzea erabakitzen duenak jakin behar du bueltako txartela ontzi barruan bakarrik saltzen dela. Eta batzuetan munduko diru guztiarekin ere ezin dela pagatu.

Horraino pertsonei eta itsasoari buruzko egia unibertsalak, izan ere, pagatzeaz hitz egin dugunez, partikularitasun inportanteak berehala agertzen dira olatu artean ordu larriak jotzen duenean. Oso diferentea da ondo gizendutako kontu korrontedun lagunekin urperatu ala 50 lagunentzat pentsatutako barkuan beste 700 pertsona baino gehiagorekin bidaia etsienari ekin.

Oso diferentea da kasu bakoitzean jasotzen den arreta ere: ipurdia galdu beharrean ibili dira nazioarteko argentiak Titanic-en hondarren bila mugildu eta Atlantikoan desagertu den urpekariko tripulazioarekin gertatu denaz informatzen, badakizkigu haien izenak eta historiak. Aldiz, ohikoa baino indiferentzia gutxixeago bakarrik gastatu dute Greziara ailegatu nahian Mediterraneoan 600 lagun auskalo nola ito direnean –Nor ziren? Nola bukatu dute hor?–. Ez da arreta mediatikoa bakarrik, kasu bakoitzean salbamendurako



erabilitako baliabideen konparazioak –Greziako kasuan halakorik izan baldin bada behintzat– zinikoenaren gibela ere sastakatzen du. Are gehiago jakinda Mediterraneoan urrun dagoela kasu isolatua izatetik.

Baina –beti baina, beti baina– iruditzen zait konparazio horretan geratzea ere problema honen iltzea erabat atera gabe uztea dela: bi bando ikusten ditugu, haietako baten alde jartzen gara eta kontuari buruz garatzen dugun ikuspegia bihurtzen da, gutxi gorabehera, bideojoko baten antzekoa. Alegia, birtuala. Eta ez gaude arrisku zentzugabeak hartzeagatik hil diren millonettien aldean, noski; baina, aitor dezagun, ez gara Mediterraneoan hil diren horiek ere.

Ikusle hutsak garela pentsa dezakezu, jabetzen zaren arte Titanic-en bila zihoanean kraskatu den urpekariko kontura sareetan agertu diren txistetxo,

bromatxo eta memetxoak nekez egingo zenituzkeela horrelako inozokerian bizia galdu dutenak gertuagokoak balira. Adibidez, iazko ekainean eta uztailean EAEko itsas-salbamenduak erreskatatu zituen 144 lagunetako baten bat, denak ere aisialdiko barku aberiatuetatik, zorionez, onik lehorreratuak –eta konparazioa luzatzen hasita, zergatik geratu uretan, Himalaiako tontorak ia zortzigarren euskal probintzia izendatu badiugu: arrisku zentzugabeagorik–.

Urpekariko titanikoetan bizia galtzen dutenei goitik behera begiratzeko moduan ez gaude, nik uste. Hobe genuke itsasoa, gizajale handi hori, hain friboloki zergatik erabiltzen dugun pentsatzea. Haren hondorik sakonenean baitaude lurreko infernutik ihes egin nahian hiltzen diren milaka lagun gorpuzkiak. Eta ez da itxurosoa jolas-parkea hilerriaren gainean edukitzea. ●



KOKOTEKO BAT  
MEREZI DUZUE,  
BAINA, EZ DIZUET  
NIK EMANGO

*ELI PAGOLA, MAITANE GARTZIANDIA ETA MIREN ARTETXE*

*AUTO BIDAIK BERTSO SAIOETARA BIDEAN.  
ZORIZKO ALIANTZAK ETA ADISKIDETASUNAK.  
OHOLTZAPEKOAK. OHOLTZA GAINEKOAK.  
BOTERE HARTZEAK, GARAGARDOAK ETA KONPRESAK.  
EMAKUMEOK JENDAURRERA JAUZI EGITEAN  
BIZI DITUGUN POZAK, ALEGIA.*

**Komiki berria**

140 orrialde koloretan

Prezioa **24 €**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

**azoka.argia.eus**

(+34) **943 37 15 45**

# OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake  
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza  
ipuin-kontalari trebeenen  
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,  
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta  
batez ere, disfrutatzen eta gozatzeko.

Aurresalmenta **12 €**